

GRADU BUKAERAKO LANA

Zuzenbidean Gradua 2023-2024

KONTZERTU EKONOMIKOA: EUSKAL FISKALITATEAREN GARAPENA

Ikaslea: Jagoba MADARIAGA GAUBEKA
Zuzendaria: Susana Serrano-Gazteluurrutia

AURKIBIDEA

Edukia

LABURDURAK.....	4
1. Sarrera	5
2. Kontzertu Ekonomikoa, errealitate foraletik Eskubide Historikora	6
3. Konstituzio garaiko lehenengo Kontzertu Ekonomikoa	10
3.1. 1981eko Kontzertu Ekonomikoa	10
4. Lehenengo xedapen gehigarrian aitortutako eskubide historikoa.....	11
5. Gernikako Estatutuko 39 artikulua	12
6. Kontzertu Ekonomikoa Gernikako Estatutuan.....	13
7. Estatutua osatzen duten beste arau batzuk	15
8. Harmonizazio Legea 4/1998 martxoaren 6koa.....	16
9. LHL eta «eskumenak mugatzen dituzten»gainerako legeak	18
10. Kontzertu ekonomikoko legea	19
11. Euskal Ekonomia Itunaren egungo erregulazioa eta funtzionamendua	28
11.1. Kontzertu Ekonomikoaren esparru tributariora	28
11.2. Kontzertu Ekonomikoaren esparru finantzarioa.....	31
12. Ekonomia Itunaren ezaugarriak eta Kupoaren aplikazio eremua	32
12.1. Ekonomia itunaren ezaugarriak.....	32
12.2. Zer da “kupoa” ?	34
12.3. 2022-2026 Bosturtekotako kupoa	36
13. Finantzaketa forala eta komunaren arteko aldeak	39
14. Lanaren ondorioak	41
BIBLIOGRAFIA ETA DOKUMENTAZIOA.....	43
DOKTRINA.....	43
ARAUTEGIA.....	45

LABURPENA

Kontzertu ekonomikoa eta euskal fiskalitatea zerga-sistema bakarra osatzen dute Espainian. Hauek, eskualdeari autonomia fiskal handia ematen diote foru-ogasunen bitartez. Horrez gain, denboran zehar eboluzionatu duen erregimen berezi horrek, Gobernu zentralaren eta euskal agintarien artean banatzen ditu zerga-baliabideak, nahiz eta horien ekitatea eta ondorio ekonomikoak eztabaidagai izan diren. Laburbilduz, gai honen azterketak sakonki aztertzen ditu federalismo fiskalaren konplexutasunak eta Espainiako deszentralizazioa.

HITZ GAKOAK

Euskal Kontzertu Ekonomikoa, Eskuduntza Fiskala, Kupoa, Deszentralizazio fiskala.

RESUMEN

El Concierto Económico y la fiscalidad vasca forman un sistema tributario único en España. Estos otorgan a la región una gran autonomía fiscal a través de dos tramde las haciendas forales. Además, este régimen especial, que ha evolucionado a lo largo del tiempo, reparte los recursos tributarios entre el Gobierno central y las autoridades vascas, aunque su equidad y sus consecuencias económicas han sido objeto de controversia. En resumen, el análisis de este asunto analiza en profundidad las complejidades del federalismo fiscal y la descentralización española.

PALABRAS CLAVE

Concierto Económico Vasco, Competencia Fiscal, Cupo, Descentralización fiscal.

ABSTRACT

The Economic Agreement and Basque taxation form a unique tributary system in Spain. They grant the region a strong fiscal autonomy through the foral treasuries. Moreover, this particular regime, which has evolved over time, shares tax resources between the central government and the Basque authorities, although its fairness and economic consequences have been the subject of controversy. The analysis of this issue deeply explores the complexities of Spanish fiscal federalism and decentralisation.

KEYWORDS

Basque Economic Agreement, Fiscal Competence, Quota, Fiscal Decentralisation.

LABURDURAK

Art	Artikulua
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa
EK	Espainiar Konstituzioa, egun indarrean dagoena, 1978
GE	Gernikako Estatutua, egun indarrean dagoena, 1979
<i>Íbidem</i>	Hor bertan
KonEk	Kontzertu Ekonomikoa
LLHH	Lurralde Historikoak: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa
Vid.	Vide, ikusi
OP cit	Aurretiaz ezarritakoa
BPG	Barne Produktu Gordina
EBJA	Europar Batasuneko Justizia Auzitegia
Orr	Orrialde

Sarrera

Euskal Ekonomia Ituna Espainiako sistema autonomikoaren funtsezko zutabeetako bat da, eta elementu berezia da zerga-arloan, bai bere errotze historikoagatik, bai bere funtzionamendu partikularrarengatik. 1878an ezarri zenetik, araubide berezi horrek Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoei ezohiko araugintza-gaitasuna eta autokudeaketa fiskala eman die, eta Espainiako gainerako autonomia-erkidegoetatik bereizi ditu.

Gradu Amaierako Lan honek Euskal Ekonomia Ituna aztertzen du, eta Espainiako zerga-araubide erkidearekin alderatzen du, bi zerga-sistema horien ezaugarri diren funtsezko aldeak aztertuz. Testuinguru horretan, gogoeta bat planteatzen da Ekonomia Itunaren bilakaera moldatu duten alderdi historiko, juridiko, politiko eta ekonomikoei buruz, baita horrek Euskadiko finantza-kudeaketan eta zerga-autonomian duen eraginari buruz ere.

Lan honen helburu nagusia Kontzertu Ekonomikoaren esparruan EAEko fiskalitatearen ikuspegi integrala eta konparatiboa ematea da, zerga-sistema komunaren aurrean dituen ezaugarri, abantaila eta erronka nagusiak aztertuz. Horretarako, honako alderdi hauek aztertuko dira: eskumen fiskalen banaketa, zergak biltzeko eta kudeatzeko mekanismoak, eta bi ereduak aplikatzearen ondoriozko emaitza ekonomiko eta sozialak.

Azterketa zorrotz eta dokumentatu baten bidez, euskal zerga-errealitatea ezagutzen eta ulertzen lagundu nahi da, baita Ekonomia Itunak Espainiako deszentralizazio politikoaren eta zerga-aniztasunaren egungo testuinguruan dituen inplikazioei eta ikuspegiei buruzko eztabaida eta hausnarketa sustatu ere.

Kontzertu Ekonomikoa, errealitate foraletik Eskubide Historikora

Ikerketa honekin hasteko, oso garrantzitsua da "Territorio Historiko" hitzaren kokapen bat egitea. 1978ko urtarrilaren 4an onartu zen Euskal Autonomia Erkidegorako autonomia-aurreko araubidea onartzen duen Errege Lege Dekretuak¹, eta "Lurralde Historiko" terminoa jaso zen lehen aldiz². ARLUCEA RUIZen iritzi, terminologiaren bilakaerak eta aldaketak pentsarazten du ez zela

¹ Urtarrilaren 4ko 1/1978 Errege Dekretu-legea, Euskal Herriarentzat autonomia aurreko erregimena onartzen duena. (1978). Estatuko Aldizkari Ofiziala.

² MARTÍNREZ ETXEBERRIA, Gonzalo (2014). *Los Territorios Históricos vascos y su producción normativa foral: Unas realidades fronterizas en busca del mejor encaje en el sistema*», AD CONCORDIAM, 18-19 orr.

horren garrantzitsua adierazlearen esanahia (lau probintziak)³. Geroago garatu zen Espainiar Konstituzioari erreparatuz, ez zen termino hau erabili baizik eta Lurralde Foralena.

Hala ere, nahiz eta Espainiar Konstituzioan termino hau ez erabili, Lurralde Historikoen eskubideak garatzen diren beste bi gorputz juridikoetan (Gernikako Estatutuak eta Lurralde Historikoen Legean, hurrenez hurren) Lurralde Historikoez hitz egiten du eta ez Lurralde Foralaz.

Ekonomia Itunaren aurrekari historikoak aztertu baino lehen, Ekonomia Ituna zer den finkatuz hasiko gara. Horretarako AD CONCORDIAN elkarteak Kontzertu Ekonomikoa azaltzeko erabiltzen dituen terminoak jasoko ditugu³: “Ekonomia Ituna Euskal Autonomia Erkidegoaren finantziario-sistema propioa da, eta horren arabera ezartzen eta arautzen dira Estatuaren eta Espainiako Estatuaren arteko finantza- eta zerga-harremanak”⁴.

Hala ere esan beharra dago Kontzertu Ekonomikoa gobernu xedapen gisa definitu zela bere sorreran. Bertan, euskal diputazioetako bakoitzak (Bizkaia, Araba, Gipuzkoa) bere bilakaera propioa izan zuen, eta Nafarroaren kasua ezberdina izan zen, 1841. urtean adostutako *Lege Itundua*⁵ zeukatelako. Itun edo paktu horien arabera, foru lurraldeak Espainiar estatuko Ogasun Ministerioari urtero ordaindu behar zion zenbateko finkoa (*kupoa*), estatuak lurralde hauetan batzen ez zituen zergen baliokide gisa.

Hori bai, nahiz eta gaur egun Kontzertu Ekonomiko hitzak zer den momentuan erlazionatzen dugun, garai horretan Dekretu hori izenik gabe jaio zen, eta bestetik aldi baterako neurritzat erabili nahi zen II. Guda Karlistaren ondorioz jasandako kalteak ordaintzeko hamar urteko deskontu gisa.

Alonso Olea dionez, nahiz eta lehen Ekonomia Ituna 1878 urtean finkatu zela aurreikusi, Ekonomia Ituna ezartzea II. Guda Karlistaren ondorio bat izan zen. Horrela, *Bergarako Besarkadarekin* karlistadak bukatutzat emango ziren eta garaileek (espainiar liberalak, Canovas del Castillo buru zela) garaituei (Karlistak, lurraldeei erreparatuz euskaldunak barne) inposatutako baldintzak ezarri ziren.

Akordioaren ondorioz, 1876ko uztailaren 21eko legeak euskal lurraldeak behartzen zituen zergak ordaintzera eta gudarostera gizonak bidaltzera,

³ ARLUCEA RUÍZ, Esteban (2000), «*La descentralización política de la Comunidad Autónoma Vasca*», Versión Editora, 27. orr.

⁴ Kontzertu Ekonomikoa. AD CONCORDIAM. <https://conciertoeconomico.org/el-concierto/>

⁵ Ley Paccionada. 1841eko abuztuaren 16koa.

estatuko beste lekuetan bezala⁶. Agindu horiek esparru guztietan forutasuna deusesteko asmoz eman ziren.

Hala ere, lurralde bakoitzeko Diputazio Foralak agindu horiei uko egin zien eta ez zituzten zergak ordaindu. Horren ondorioz, Antonio Canovas del Castillok, Estatuko presidente zena, Errege Dekretu baten bitartez⁷ Bizkaiko Foru aldundia ezabatu zuen, errege baten aginduz Aldundi berri bat sortuz.

Egondako tirabiren ondorioz, Diputazioei Madrilera dei egin zitzaien; alde batetik, 1877ko azaroaren 13ko dekretuan ezartzen den kupo ordaintzera eta bestetik, aukera baliatuz, beste zergei buruz negoziatzeko.

Erkorekaren aburuz, 1878an sinatutako Ekonomia Itunak, hasiera batean, zortzi urterako ezarritako izaera iragankorra izan zuen. Baina beste faktore politiko eta ekonomiko batzuekin batera euskal Aldundiek garatutako defentsa arduratsuek azaltzen du Kontzertuaren "behin-behineko" sistema denboran zehar sendotzea lortu zuela. Bere ezaugarri nagusiak aldatu gabe mantendu ziren 1878tik 1937 urtera arte⁸. 1882tik aurrera, Kontzertu Ekonomiko Administratiboa deitzen zitzaion. Orduan boterean indarrez zegoen erregimen frankistak indargabetu baitzuen akordio haren ondorioz gaur egun Kontzertu Ekonomikoa bezala ezagutzen duguna.

Esan bezala lehen Kontzertu Ekonomikoa 1878. urtean eman zen, honek 8 urteko iraungitze data zeukan, horren ondoren 1887, 1894 eta 1906 etorri ziren.

Gera gaitezen 1906ko Kontzertu Ekonomikoan.

Honek aurreko biek alderatuz garrantzi handiagoa izan zuen. Izan ere, 1906ko berrikuntza inflexio-puntua izan zen Kontzertu Ekonomikoaren finkatze prozesuan. Alde batetik, aurreko berrikuntzen lorpenak finkatu eta sistematizatu zituen, eta epe luzerako lehen berrikuntza bihurtu zen, hogeitaz urterako negoziatu baitzen.

Larrazabal Basañezek dionez, adierazitakoa Errege Dekretuaren 15. artikuluan ezarritakoan oinarritu dezakegu. Artikulu horretan, argi eta garbi ikusten da euskal diputazioek ordura arte erabiltzen zituzten administrazio eskuduntzak sendotu egin zirela. "Las diputaciones de Vizcaya, Guipúzcoa y Alava

⁶ ALONSO OLEA, Eduardo J. (1995), «*El Concierto Económico (1878-1937). Orígenes y formación de un Derecho Histórico*», IVAP-Col. Tesis Doctorales,

⁷ 1877eko maiatzaren 5eko Errege Dekretua. Bizkaiko Foru Aldundia indargabetzeko

⁸ ERKOREKA GONZÁLEZ, Mikel (2020), «*Concierto Económico y tributación empresarial. El impacto fiscal de la creación del jurado mixto de utilidades (1927-1933)*», Rev. Historia contemporánea, Nº 65, 2021, orr.

continuaran investidas, así en el orden administrativo como en el económico de todas las atribuciones que vienen ejerciendo”⁹.

Nahiz eta 1906 urteko erreformak estatuaren eta euskal diputazioen arteko talkak geldiarazi zituela uste, hau ez zen benetan gertatu. Arazo tekniko batzuk egon omen ziren; Martinez Etxebarriaren liburutik ateratakoaren laburpena bat egin ondoren hurrengo esan dezaket. Euskal Herriko hiru probintzietan jarduerak garatzen zituzten enpresa atzerritarrei erabilgarritasun kontribuzioa kobratzeari buruzkoak, Ogasun Ministerioari zergak ordaindu behar zizkietenak eta ez Euskal Herriko probintzietako organo biltzaileei.¹⁰

Aurreko urteetan izandako arazoak konpontzeko 1919. urtean gobernuak “Decreto Cortina” izendatutako dekretu bat eman zuen, honetan Kontzertu Ekonomikoaren finkatze prozeduran une garrantzitsu bat izan zen. Kontzertu Ekonomikoa izaera aldebikoa eta itundua zeukala eta horren gaineko edozein erreforma edo aldaketa egiteko nahia egonez gero, Estatuaren eta probintzien arteko akordioa ezinbestekoa zela ondorioztatu zuen dekretu honek.

1931ko maiatzaren 18an emandako dekretua oso garrantzitsua izan zen. Niceto Alcalá Zamorak emandako dekretuan Espainiar estatuko II errepublika garaian Euskal probintzien Kontzertu Ekonomikoa konfirmatzen omen zuen dekretu honek. Horren ondorioz, esan dezakegu sistema honek 1937ko ekainaren 23ra arte iraun zuela. Izan ere, data horretan, Bizkaia eta Gipuzkoa gerra zibilean tropa frankisten kontra lehiatu zirenez, zigor moduan, Kontzertu Ekonomikoa indargabetu egin zitzairen. Arabaren kasuan, tropa frankistekin batera lehiatu zirenez, haiek sistema mantendu zuten; Nafarroaren kasuan, haien hitzarmen ekonomikoa ere mantendu zuten.

Diktadura garaian bi berriztapen eduki zituen: 1952. urtean eta 1976. urtekoa azkenengo horrek 1981 urte-arte iraun zuen, non demokraziaren ezarpenaren ondorioz eta 1979ko Euskal estatuaren ondorioz kontzertu ekonomiko berri bat ezartzea ahalbidetu zen. Honek berriz ere hiru Euskal probintziak barne hartzen zituen. Honekin lehen ezarritako zigorra indargabetuz eta horrela hiru Euskal probintziak ogasun mailan maila bereberetan ezarri.

Kontzertu Ekonomikoa 1978ko Espainiako Konstituzioaren eta 1979ko Euskal Autonomia Estatuaren onarpenetik gaur egunerarte.

⁹ MARTINEZ ETXEBERRIA, Gonzalo. (2014). «*La defensa jurídica de un derecho Histórico paradigmático: El Concierto Económico vasco* » (117orr). Tesis Doctorales de la Hacienda Foral.

¹⁰ *Íbidem*. 119 orr.

Lehen aipatu dudan bezala 1978ko Espainiar Konstituzioaren sorrerarekin, Lurralde Historikoek zeukaten hainbat eskubide berreskuratu zituzten, hala nola, Euskal probintziek zeukaten Kontzertu Ekonomikoa berreskuratu zuten. Gorago aipatu dudan bezala, berreskuratu ez zuten hiru probintziek berreskuratu zituzten, Arabaren kasuan ez zutelako inoiz ere ez galdu. Haatik, Bizkaia eta Gipuzkoarentzat albiste oso garrantzitsua izan zen. Esan beharra dago ez zela lan erreza izan, interes kontrajarriak zeudelako momentu horretan Espainiako estatuan, hala ere, momentu horretan gobernuan zeuden politikariak adostasunerako garaia zela aurreikusi zuten.

1981eko Kontzertu Ekonomikoari buruz hitz egin baino lehen oinarritzkoa ikusten dut Gernikako Estatuari eta EAERI buruz hitz egitea.

Arlucearen iritziz, Euskal Autonomia Estatutua onartu zen lehenengo estatutua izan zen¹¹. Anekdotikoa dirudien arren, oso garrantzitsua zen lehena izatea muga batzuk ezartzeko. Esan ohi da Gernikako Estatutua Kataluniar Estatutua baino ordu bat lehenago heldu zela. Horrekin euskal politikariek beraien helburua lortu zuten eta kontseilu orokorra aztertuko zuen Estatutu ante-proiektua Gernikako Estatutua zen¹².

1979ko abenduaren 18an Euskal Autonomia erkidegoa sortu zen. Momentu horretara arte Euskal probintziei EAE deitzea akats bat zela dio autore honek, Arlucearen⁹ ustez, Espainiako 78ko konstituzioa sortu arte autonomiak ez baitziren existitzen, euskal probintzia deitu behar zitzairen. Arluzearen teoria horrekin ez dut bat egiten. Iñaki Anasagastik ondorioztatzen duen bezala, nahiz eta 1978ko Espainiakoa Konstituziorarte autonomiarik ez egon, 1936. urtean Euskal gobernu bat sortu zen Autonomia Estatutuko xedapen iragankor batean ezarritakoan oinarrituz¹⁰, hau da, frankistek okupatu gabeko udaletako zinegotziek izendatuko zutela Eusko Jaurlaritzako lehen lehendakaria.

Euskal historia errepasatzen baldin badugu, Jose Antonio Agirre, Gernikako batzar nagusietan 1936ko urriaren 7an aukeratu zuten lehendakari. Agirre lehendakariak Euskal Herriaren defentsan lan arduratsua egin zuen erbestean 1960 urte-arte. 1960 urtetik Garaikoetxea heldu arte lehendakariaren figura.

Jesus Maria Leizaolaren gain erori zen, hura erbestean ere Euzkadiren defentsa lanean ibili baitzen.

¹¹ ARLUCEA RUÍZ, Esteban (2000), «*La descentralización política de la Comunidad Autónoma Vasca*», Versión Editora, 27. orri

¹² *Ibidem* 27 orri

1980ko martxoan frankismoaren osteko lehen EAEko hauteskundeak izan ziren, beti ere, lehen aipatu dudan bezala ARLUZEAREN ustetan, nahiz eta nire ustez 1936. urtetik 1978. urtera arte egondako gobernuak legitimoak izan. Hauteskunde horietan EAJ izan zen garaile; nahiz eta gehiengo absolutua ez lortu, Carlos Garaikoetxea lehendakari bihurtu zen.¹³

Euskal Estatutuari eta Eusko Jauriaritzari buruzko ohar batzuk egin ondoren, Konstituzio berriaren eta Gernikako Estatutuaren garrantziaz hitz egingo dugu. Izan ere, Kontzertu Ekonomikoa eta Nafarroako Hitzarmen Ekonomikoa egongo diren errealitate juridiko berri baten eraketan eragingo dute. Hori bai 1978 EKren Lehenengo Xedapen Gehigarrian egokitzapena errespetatuz¹⁴.

Konstituzio garaiko lehenengo Kontzertu Ekonomikoa

1981eko Kontzertu Ekonomikoa

Frankismo aurreko garaietan gertatutakoaren laburpen txiki bat egin ondoren, lehen aipatu dudan frankismo osteko lehen Kontzertu Ekonomikoari buruz hitz egingo dut. Nahiz eta, aipatu dudan bezala, Arabako lurralde historikoan Kontzertu Ekonomikoaren figura frankismo garaian mantendu, beste bi probintzietan zigor moduan indargabetu zen. Horren ondorioz, franko hil zenean bi probintzia horiek aurretik zeukaten eskubide hori berreskuratu nahi zuten. Horretarako Adolfo Suarezren gobernuarekin hainbat negoziaketa eduki zituzten.

Negoziaketa horiek 1981eko Kontzertu Ekonomikoan islatzean dira. Kontzertu Ekonomikoa beren beregi aztertu baino lehen, negoziazio hori nola gauzatu zen aztertuko dut, lortutakoa hobeto ulertzeko.

Negoziaketa honek, hasieratik tirabirak eduki zituen. Alde batetik, batzordearen alde euskaldunak testuak zerotik hasi behar zela defendatzen zuen¹⁵, eta bestetik, alde estatalak Eusko Kontseilu Nagusiko garaiko testua oinarri gisa erabili behar zela zioen.

Azkenean, zerotik hastea erabaki zen, baina negoziaketa oso motela zen, eta egoera oso abstraktua, EAERako 2 zerga eta finantza araubide ezberdin zeudelako, Arabarako foru erregimena eta bestetik erregimen komuna Bizkaia

¹³ ARLUCEA RUÍZ, Esteban (2000), «*La descentralización política de la Comunidad Autónoma Vasca*», Versión Editora, 27. orr

¹⁴ MARTINEZ ETXEBERRIA, Gonzalo. (2014). «*La defensa jurídica de un derecho Histórico paradigmático: El Concierto Económico vasco*» (117orr). Tesis Doctorales de la Hacienda Foral.

¹⁵ *Ibidem*

eta Gipuzkoarako.

Esaten da, abenduaren 9an Suarez EAera etortzeak negoziaketa aurrera egitea ahalbidetu zuela. Horren ostean, negoziazio luze bat etorri zen; 346 orduko etenik gabeko negoziazio bat izan zela esaten da, Bertan hitzez hitz negoziatzen baitzen.

Abenduaren 29ko gaueko hamar ta erdietan amaiera eman zitzaion. Oso garrantzitsua zen Abenduaren 31an baino lehen amaitzea eta euskal politikarien izugarriko lanaren ondoren lortu zuten akordioa. Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako ministroen kontseiluak hurrengo egunean onartu zuten itundutako testua, nahiz eta lege-proiektua 1981eko urtarrilaren 23an onartu.

Argi dago Euskal autonomia erkidegoaren izaera normatiboa apur bat korapilatsua dela, izaera normatiboa hori Espainiar Konstituzioko lehenengo xedapen gehigarrian eta Gernikako Estatutuan oinarritzen da.

Bi izaera horiek ezin dute guztia arautu, horretarako beste gorputz normatibo batzuetan babestu behar dira guztia arautu ahal izateko, hauek dira: Ekonomia Itunaren Legea, Harmonizazio, Koordinazio Legea eta Lurralde Historikoen Legea, bai eta Lurralde Historikoen Foru Arauak ere.

Uste dut beharrezkoa dela Euskal ordenamendu juridikoa osatzen duten gorputz juridiko guztien analisi bat egitea.

Lehenengo xedapen gehigarrian aitortutako eskubide historikoa

Xedapen gehigarri honek hala esaten du:

“Konstituzioak babestu eta onartzen ditu forudun lurraldetako eskubide historikoak. Forudun erregimenaren gaurkotze orokorra, dagokionean, Konstituzio eta Autonomia Estatutuen barnean egingo da”.

Zalantza batzuk sortarazi ahal ditu, lehenik eta behin, zer den eskubide historiko bat eta nondik datorren eskubide historiko hau. Celaya Ibarren ustez; adierazpenean bertan kontraesan bat antzeman daiteke, iraganeko gertaerei erreferentzia egiten dien historiko dena eta zerbait biziari eta ekiteari buruzko zuzenbidearen artean. Ulertu daiteke eskubide historiko bati buruz hitz egiten dugunean iraungitako zeozeri buruz hitz egiten ari garela, aldiz, kasu honetan, eskubide historikoak bizirik eta garrantzi handia daukan objektu juridiko bati

buruz ari gara¹⁶.

Aldiz, Aizbea Atelaren ustez, Doktrinak azpimarratzen du zaila dela eskubide historikoak definitzea, ez dutelako ezaugarri komunik garai eta leku guztietan, eta, beraz, zaila da oro har identifikatzea. Konstituzioa betetzen duten eskubideak soilik babes ditzake 1. xedapen gehigarriak, baina ez dago akordiorik eskubide horiek eguneratzeko zer araudi mota behar den zehazteko¹⁷.

Endemaño Arostegui esaten duena oso logikoa ikusten dut, azken finean 1978 urtean EAEn bi errealitate juridikoen arteko talka sortu baitzen. Alde batetik, momentu horretan sortutako Euskal Autonomia Erkidegoa eta bestetik, frankismo garaian indarrrik gabeko 2 lurralde historiko eta bizirik zegoen izaera foraleko bat Arabako kasua¹⁸. Kasu honetan talka bat sortzea normala da, bi botereen arteko gatazka bat dagoelako. Hau ekiditeko aurrerago azalduko dudan arbitraje batzordea sortuko da, arazo eta gatazka guztieii irtenbide bat bilatzeko. Arbitraje batzorde hau lehen aipatutako bigarren oinarri juridikoan islatzen da.

Gernikako Estatutuko 39 artikulua

Autonomia Erkidegoko erakundeen eta lurralde historiko bakoitzeko erakundeen artean sor daitezkeen eskumen-gatazkek arbitraje-batzorde batek ebatziko ditu. Arbitraje- batzorde hori askatasunez izendatutako ordezkari-kopuru berak osatuko du. Eusko Jaurlaritzak eta interesa duen lurraldeko foru-aldundiak, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko lehendakaria buru dela, Eusko Legebiltzarraren lege batek zehazten duen prozeduraren arabera.

Hau da, osaketa hurrengoa izango litzateke: Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko lehendakaria izango da batzordeburua, eta sei kidek osatuko dute: Eusko Jaurlaritzak izendatutako hiru kidek eta foru-aldundi bakoitzak izendatutako beste hiruk.

Lurralde historikoen eskubideen eguneratzea nola gauzatu behar den ez dago oso argi xedapen gehigarrian idatzitakoa irakurtzen baldin badugu.” Forudun

¹⁶ CELAYA IBARRA, Adrian. (1986) «*La decadencia del Regimen Foral y los derechos historicos*” *Jornadas de Estudio sobre la Actualización de los Derechos Históricos Vascos*»: San Sebastián, julio 1985, Guipuzkoako Foru Aldundia = Diputaciòn Foral de Guipúzcoa, 1986, 30-47 Orr.

¹⁷ ATELA URIARTE, Aizbea. (2021). «*El desafío del fortalecimiento de la autonomía municipal: La Ley de Instituciones Locales de Euskadi* » (252 orr). Euskadiko Autonomia Elkarteko Adminitrazioa.

¹⁸ ENDEMAÑO ARÓSTEGUI, J. M., «*La regulación del régimen local en la Comunidad Autónoma del País Vasco. Una cuestión pendiente*». RVAP, núm. 96, mayo-agosto 2013, 113orr

erregimenaren gaurkotze orokorra, dagokionean, Konstituzio eta Autonomia Estatutuen barnean egingo da". Honetan, Gernikako Estatutua eta Konstituzioa betez gaurkotu behar diola dio, baina ze nolako izaera normatiboa erabili behar dugu hau gauzatzeko, nor izango da Eskuduna.

Galdera horiei erantzuten hainbat autore atera dira izaera normatibo bat edo beste bat erabili behar dela esanez. Oraingoan hauek emandako ideiak plazaratuko ditut.

Razquin Lizarragaren ustez, eskubide historikoak eguneratzeak konstituzio-printzipioen kontra doazen eskubide horiek ezabatzea edo ez aitortzea dakar. Ondorioz, eskubide horiek eguneratu nahi baldin badira beti egin beharko dira Konstituzioa errespetatuz¹⁹.

Aizbea Atelaren ustez: eguneratze horiek beti tirabiratsuak izan ahal direnez eta jakinda lurralde historikoen estatuaren eta EAEren arteko erlazioa beti akordioetan oinarritu ohi dela, kasu honetan ere transakzioak²⁰ askotariko formuletan, arindu egin dezake²¹.

Castells Artecheren ustez, eguneratze hau Euskal Parlamentuaren gain erori beharko litzateke azken finean haiek direlako Euskadiko ordezkari-tza-instantzia gorena²².

Kontzertu Ekonomikoa Gernikako Estatutuan

Oraingoan Gernikako Estatutuan Lurralde Historikoei ematen dien izaera juridikoari buruz hitz egingo dizuet. Honetan euskal lurralde historikoek Euskadi osatzen duten berezko erakunde gisa aitortzen du Gernikako Estatutua. Honetarako estatuaren 2 eta 3 artikulua lurralde historikoak onartzen dituela aztertuko dut.

¹⁹ LIZARRAGA, Razquin. (1991). «*La doctrina constitucional sobre los derechos históricos de los territorios forales De la negociación al reconocimiento*», *Revista de administración pública*, Nº 124, 280 orr.

²⁰ Transakzioa: Gatazkak konpontzeko autokonposizio-sistema bat da, eta, horren bidez, lehiakideek beren gatazka konpon dezakete, baita prozesu judicial edo arbitraje-prozesu bat hasi badute ere. Kontratazio-askatasunaren printzipio orokorrean oinarritzen da (Kode Zibilaren 1255 art.).

²¹ Atela Uriarte, Aizbea. (2021). «*El desafío del fortalecimiento de la autonomía municipal: La Ley de Instituciones Locales de Euskadi*» (254 orri). Euskadiko Autonomia Elkar-teko Administrazioa

²² CASTELLS ARTECHE, J. M., «*Los derechos Históricos en el desarrollo estatutario*». *Jornadas de Estudios sobre la actualización de los Derechos Históricos Vascos*. Servicio editorial Universidad del País Vasco, San Sebastián, Julio 1985, 539 orr.

Bigarren artikulua.

Arabak, Gipuzkoak eta Bizkaiak dute, baita Nafarroak ere, Euskal Autonomia Erkidegoa osatzeko eskubidea.

Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldea Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko lurralde historikoek osatuko dute, egungo mugetan probintziekin bat egiten badute, bai eta Nafarroakoak ere, baldin eta Nafarroak Konstituzioaren laugarren xedapen iragankorrean ezarritako prozeduraren arabera kide egitea erabakitzen badu.

Hirugarren artikulua.

Euskal Autonomia Erkidegoak, bere baitan, bere antolakuntza eta autogobernurako erakunde propioak gorde edo, hala badagokio, berrezarri eta eguneratu ahal izango ditu (...)».

Bestetik, Gernikako Estatutuan beraren 24. Artikuluan Lurralde Historikoak Euskal Autonomia Erkidegoaren botere gisa definitzen ditu eta horren ondorioz beraren instituzioak mantendu eta gobernatu beharko ditu.

24.Artikulua

Euskal Herriaren botereak Legebiltzarraren, Jaurlaritzaren eta Lehendakariaren bidez gauzatuko dira.

Lurralde historikoek beren foru-instituzioak gorde eta antolatuko dituzte.

3. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Gainera, Gernika Estatutua berak, bere II. Tituluan kokatua, «Euskal Herriko Botereak» izenburupean, Lurralde Historikoak eratzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko botere gisa. Botere horiei beren foru-erakundeak mantentzea eta beren burua antolatzea dagokiela dio. Bestalde, EAEEren xedapen gehigarri bakarrak honako hau ezartzen du²³.

Zaralejos Nietok honako hau adierazi du: «(...) Estatutuak foru-integrazioa onartzen du, eta, printzipioz, EAEEren 37. artikulua, lurralde historikoen titulartasunekoforu-eskumenak zehazten dituena.²⁴

Corcuera Atienzak honako hau dio: «(...) EAEEren xedapen gehigarri bakarra eta EKren 1. xedapen gehigarriaren arabera, Foru Aldundiek lehen lege indargabetzailearen aurreko egunetan zituzten botere eta eskumen zehatzak

²³ Gernikako estatutuko xedapen gehigarriak hurrengo esaten du: “La aceptación del régimen de autonomía que se establece en el presente Estatuto no implica renuncia del Pueblo Vasco a los derechos que, como tal, le hubieran podido corresponder en virtud de su historia, que podrán ser actualizados de acuerdo con lo que establezca el ordenamiento jurídico “

²⁴ ZARZALEJOS NIETO, Jose Antonio (1986), « Reintegración foral en los aspectos orgánicos diputaciones forales y juntas generales», Jornadas de Estudio sobre la Actualización de los Derechos Históricos Vascos: San Sebastián, julio 1985 (Guipuzkoako Foru Aldundia = Diputación Foral de Guipúzcoa), 166-181 orr.

indarra berreskuratu nahi dute²⁵.

Haatik, azkenengo autore honek esandakoak ez du doktrinan indar handia lortu.

Azaldutako jarrerak gorabehera, Konstituzio Auzitegiak, 1988ko apirilaren 26ko 76/1988 KAetik, Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundeen arteko harremani buruzko Eusko Legebiltzarraren azaroaren 25eko 27/1983 Legearen zenbait manu Konstituzioaren kontrakotzat jotzen baititu, honako hau adierazten du²⁶.

Sententziak esandakoarekin argi ikusten da aurreko autore batzuen ondorioak desegokiak direla, sententziak jurisprudentzia sortzen duena esaten baitu Gernikako Estatutuak, Lurralde Foralek zeuzkaten eskubideak gaur egunerokotasunean berrintegrazioa eta berregituraketa egiten baitu, honekin hiru lurralde historiko horiek zeuzkaten autogobernua berreskuratuz.

Estatutua osatzen duten beste arau batzuk

Gernikako Estatutua, aurreko puntuan azertu dudan bezala, ez du guztia arautzen, gehien bat estatutua hainbat esparruetan irekia da. Horren ondorioz, Jimenez Asensio autoreak titulu honetan ezartzen dena sortu zuen, Kontzertu Ekonomikoa estatututik definitzeko haratago dauden arau batzuekin ere arautu behar dela Kontzertu Ekonomikoa²⁷.

Ez ditu Lurralde Historiko eta Estatuaren arteko harremanak zuzenki arautzen, baizik eta eskumenak irekita uzten ditu; hori izan daiteke, lehen aipatu dudan bezala, haien onurarentzako hobe delako zerrenda itxi bat ez izatea.

Hala ere, autore batzuk ez daude ados nik esandakoarekin, adibidez: Jimenez Asensiok Gernikako Estatutua instituzionalizazio-arau bukatugabe gisa definitzen du. Haren ustez, Gernikako Estatutuak Euskadiren egituratze instituzionala hasten du, baina ez du bukatzen.

Bestetik, Larrazabal Basañezek adierazi duenez, «(...) Gernikako Estatutuan ez da eskumenen banaketa zurrana ezartzen erakunde erkideen eta lurralde

²⁵ CORCUERA ATIENZA, Javier (1985), «*Alcance de la constitucionalización de los derechos históricos*», *Jornadas de Estudio sobre la Actualización de los Derechos Históricos Vascos*: San Sebastián, julio 1985, Guipuzkoako Foru Aldundia = Diputación Foral de Guipúzcoa, 380-409orr.

²⁶ Konstituzio Auzitegiak, 1988ko apirilaren 26ko 76/1988 KAetik.

²⁷ JIMÉNEZ ASENSIO, Rafael (1997), «*El sistema de fuentes del derecho de la Comunidad Autónoma del País Vasco como mecanismo asimétrico*», *Revista Vasca de Administración Pública. Herri-Arduralaritzako Euskal Aldizkaria*, Nº 47, 2, 167 orr.

historikoen artean, baizik eta mekanismo ireki eta malgu bat ezartzen du, horien eskumenak handitzeko aukera ematen duena; ziurrenik, onartu zen unean beste lehentasun batzuk zeudelako eta ez zegoelako argi zein barne-egituraketaren eredurantz joko zen²⁸.

JIMENEZ ASENSIOren ustez; Gernika Estatutua ere ez du arautzen EAeko barneko ekonomia eta finantza-harremanen sarearen edukia, ezta EAeri dagozkionak ere. Bere artikuluan aitortzen du 41. artikulua: Estatuaren eta Euskadiren arteko zerga arloko harremanak Ekonomia Itunaren foru-sistema tradizionalaren bidez arautuko dira, baina zenbait printzipio eta oinarri baino ez ditu zehazten, eta horien edukiak beti errespetatu behar ditu (EAEEren 41.2 artikulua)²⁹.

Araudi horrek jatorri eta intentsitate desberdinak ditu, eta, funtsean, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea indarrean sartu arte, honako hauek osatzen dute: Ekonomia Itunaren Legea, Zerga Harmonizazio, Koordinazio eta Lankidetzarako Legea, Lurralde Historikoen Legea eta lurralde historikoetako foru-arauak.

Oraingoan laburki bada ere, 4 lege hauek daukaten garrantzia eta eraketa esparrua aztertuko ditut. (Kontzertu Ekonomiko legea/Lurralde historikoen legea/ Harmonizazio eta koordinazio legea/Lurralde historikoen arau foralak)

Harmonizazio Legea 4/1998 martxoaren 6koa

Harmonizazioaren ideia ez da uniformizazioaren ideiarekin identifikatu behar. Ildo horretan, Eusko Legebiltzarrarentzat berarentzat jarduera-eremu garrantzitsua utzi behar da, kasu bakoitzean araudi bakoitza Herriaren interesentzat komenigarri jotzen duen uniformetasun edo dibertsitate mailarekin bateratzearen alde egingo baitu.³⁰

²⁸ LARRAZABAL BASAÑEZ, Santiago. «¿26 años no es nada...? Luces y sombras en la distribución de competencias entre Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma del País Vasco y las de sus Territorios Históricos». Revista Vasca de Administración Pública, núm. 87-88, 2010. 711orr

²⁹ Gernikako Estatutuko 41.2 artikulua: 2. *El contenido del régimen de Concierto respetará y se acomodará a los siguientes principios y bases:a) Las Instituciones competentes de los Territorios Históricos podrán mantener, establecer y regular, dentro de su Territorio, el régimen tributario.*

³⁰ Harmonizazio Legearen arabera, hau zenbait parametroren esparruan kudeatu behar da.

Atendiendo a la estructura general impositiva del Estado, a las normas que para la coordinación, armonización fiscal y colaboración con el Estado se contengan en el propio Concierto, y a las que dicte el Parlamento Vasco para idénticas finalidades dentro de la

Jiménez Asensioen arabera, harmonizazio, koordinazio eta lankidetzak fiskaleko legeak sistemaren "itxiera-arau" gisa jokatzen du, eta hori abian jartzeak ez litzuke oztopatu behar Ekonomia Itunak lurralde historikoei esleitutako araugintza-ahalak.³¹

Zerga-arloko ahalen titularrak lurralde historikoetako erakunde eskudunak dira: Batzar Nagusiak eta foru-aldundiak. Erakunde erkideek, berriz, salbuespenez baino ez dute gai horretan esku hartzeko gaitasuna, baina horrek ez du esan nahi Lurralde Historikoak izaten jarraituko duen eskumenaren benetako titularrak ahalmena galduko duenik.

Martxoaren 6ko 4/1998 Legearen edukiak zerga horietan harmonizatu beharreko gaiakedo Ekonomia Itunaren aldaketak araugintza-eskumen berriak eman dizkie Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeei, eta esparru orokor bat ezarri da, bateratzeko asmorik gabea, baina zerga-figura bakoitzaren funtsezko elementuei eragiten diena.

Aizbea Atelaren ustez, Harmonizazio, Koordinazio eta Lankidetzak Fiskalari buruzko maiatzaren 30eko 3/1989 Legea onartzeak errezeloak eragin ditu lurralde historikoen zerga-eskumenen aurkako erasoak aurreikusi ahal izan dutenengan, baina egia esan, logikoa denez, beharrezko legea da, euskal erakundeek, Ekonomia Itunaren esparruan, zerga-arloko eskumen arautzaile gehiago hartu baitituzte beren gain, EAEko lurraldean ogasun-sistema koherente eta orekatu bat eraikitze aldera.³²

Comunidad Autónoma. El Concierto se aprobará por Ley. b) La exacción, gestión, liquidación, recaudación e inspección de todos los impuestos, salvo los que se integran en la Renta de Aduanas y los que actualmente se recaudan a través de Monopolios Fiscales, se efectuará, dentro de cada Territorio Histórico, por las respectivas Diputaciones Forales, sin perjuicio de la colaboración con el Estado y su alta inspección. c) Las Instituciones competentes de los Territorios Históricos adoptarán los acuerdos pertinentes, con objeto de aplicar en sus respectivos Territorios las normas fiscales de carácter excepcional y coyuntural que el Estado decida aplicar al Territorio común, estableciéndose igual periodo de vigencia que el señalado para éstas. d) La aportación del País Vasco al Estado consistirá en un cupo global, integrado por los correspondientes a cada uno de sus Territorios, como contribución a todas las cargas del Estado que no asuma la Comunidad Autónoma. e) Para el señalamiento de los cupos correspondientes a cada Territorio Histórico que integran el cupo global antes señalado se constituirá una Comisión Mixta integrada, de una parte, por un representante de cada Diputación Foral y otros tantos del Gobierno Vasco, y de otra por un número igual de representantes de la Administración del Estado. El cupo así acordado se aprobará por Ley, con la periodicidad que se fije en el Concierto, sin perjuicio de su actualización anual por el procedimiento que se establezca igualmente en el Concierto. f) El régimen de Conciertos se aplicará de acuerdo con el principio de solidaridad a que se refieren los artículos 138 y 156 de la Constitución.

³¹ JIMENEZ ASENSIO Rafael. «El sistema de fuentes del derecho...», op. cit. 144orr

³² ATELA URIARTE, Aizbea. (2022). «El desafío del fortalecimiento de la autonomía municipal: La Ley de Instituciones Locales de Euskadi » (259 orri), Instituto Vasco de

Lurralde Historikoen Legea eta «eskumenak mugatzen dituzten» gainerako legeak

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua arau irekitzat jotzen denez, ez baitu zehazten boterearen barne-banaketa, ez eta EAEko araubide ekonomiko pribatiboa ere, beharrezkoa izan da «eskumenak mugatzen dituzten beste arau batzuk» onartzea EAEko erakunde erkideen eta haien foru-organoen artean, eta lan hori, batik bat, Autonomia Erkidego osorako erakundeen eta bertako lurralde historikoetako foru-organoen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeari egokitu zaio. Ildo horretan, esan behar da Lurralde Historikoen Legea dela Estatutua osatzen duen araua boterearen barne-banaketari dagokion guztian, eta, gainera, barneko ekonomia eta finantza-araubidea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasunaren eta lurralde historikoetako ogasunen artean sortzen diren harreman konplexuak zehazten ditu.

Oraingoan LTHk beraren 6.2 artikuluan ezartzen duena aztertuko dugu. «Nolanahi ere, lege-mailako arauak emateko ahalmena Legebiltzarrari bakarrik dagokio.»³³

Orduan oraingoan artikulua honetan ezarritakoak hainbat ikuspegi sortu ditu Batzar orokorrek sortzen dituzten normen kategoria ezartzerako orduan. Jarraian doktrinak zer dioten aztertuko dit.

Fernández Rodríguez jaunari jarraituz, foru-arauak lurralde historikoei estatutuetan gordetako eremuaren ondorioz sortutako erregelamenduak dira. EAEEn 37.3 artikulua foru-berme instituzionala kondentsatzen du, eta, beraz, erregelamendu autonomoak dira; beraz, organo foralak emandako arauak erregelamendu forma daukate³⁴.

Leguina Villaren iritziz, «(...) Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoak, argi eta garbi, gai jakin batzuei buruzko berezko botere arauemailearen titularrak dira, baina horrek ez du esan nahi arau juridikoak emateko ahalmen hori dagoenik. Lurralde Historikoek beren araugintza-ahalmen autonomoa erabili behar dute legeen mendeko beren arau-produktuen bidez.»³⁵ Produktu horiek

Administración Pública, Vitoria-Gasteiz, 259 orr.

³³ 1983/27legea, azaroaren 25ekoa. «De Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos»,

³⁴ FERNÁNDEZ RODRÍGUEZ, T. R., *Los derechos Históricos...*, op. cit., 145orr

³⁵ LEGUINA VILLA, J., «Los Territorios Históricos vascos: poderes normativos y conflictos de competencias». *Revista Española de Derecho Constitucional*, Volumen 1, núm. 3,

subiranotasuna (Estatua) edo autonomia politikoa (Autonomia Erkidegoa) duen lurralde-erakunde goren batean integratutako lurralde edo toki-korporazioei dagozkie, hau da, erregelamenduzko arau juridikoen bidez.

Bestalde, Lasagabaster Herrarte adierazi du foru-arauen azterketan jarraitu beharreko argudio-ildoak udal-ordenantzetan erabilitakoaren berdina dela, eta desberdintasun bakarria erakunde arau-emaitzen izaerarena dela.³⁶

Orduan momentu-arte aztertutako doktrinaren ondorioak aztertzen baditugu, esan dezakegu Lurralde historikoek gauzatutako arauak erregelamendu gisa definitu behar ditugula. Baina adibidez hurrengo autore biek ez dute bat egiten aurreko autoreak esandakoarekin, Zarzalejos Nietok zerbait desberdina esan du, honako hau baitio: Batzar Nagusiek emandako foru-arauak lege-indar materiala dute, nahiz eta formalki, nahitaezko arau-hierarkian, erregelamendu-agindu autonomo edo independenteekin parekatu daitezkeen. Nolanahi ere, behartzeko indarra duten arauen aurrean gaude, izaera organikoa izan arren, sui generis izaera juridikoarekin. Ildo honetatik jarraituz³⁷, Jiménez Asensioen arabera, beraren izaera juridikoak ez du parekorik beste ezein ordenamendu juridikorekin, eta foru-arauaren eraikuntza dogmatikoa ezin da lege-erreserbaren nozioetik lortu, ezta haren izaera zalantzan jarri ere³⁸, Legezkotasun Printzipiotik eratorritako eskakizunak betetzen ez dituela esanez, bi planoak ez baitagozkio antolamendu foralari. Beraren liburuan hurrengo esaten du.³⁹ «La ley es una categoría normativa, según este autor, ajena al ordenamiento foral como ordenamiento propio. Considera que es una obviedad que la norma foral no pueda tener rango de ley como reconoce el EAPV porque el rango es inherente al Principio de Jerarquía, que surte efectos, exclusivamente, en el interior del ordenamiento autonómico de las Instituciones comunes, pero no puede extenderse tal

septiem bre- diciembre, 1981, 65 orr

³⁶ LASAGABASTER HERRARTE, I., «*Las normas forales: su naturaleza jurídica*». AAVV, Cuestiones Particulares del régimen foral y local vasco», Oñati, 1994, 216-218orr

³⁷ ZARZALEJOS NIETO, A., «*Reintegración foral en ...*», op. cit., 177orr

³⁸ JIMÉNEZ JIMÉNEZ ASENSIO, Rafael (1997), «*El sistema de fuentes del derecho de la Comunidad Autónoma del País Vasco como mecanismo asimétrico*», Revista Vasca de Administración Pública. Herri-Ardularitzako Euskal Aldizkaria, Nº 47, 2, 127-172orri. Mantiene una postura radicalmente contraria a la de IBARRA ROBLES quien desdeña la interpretación de la garantía institucional de la autonomía foral instituida por FERNÁNDEZ RODRÍGUEZ y analiza la naturaleza jurídica de las normas forales desde el prisma del Principio de Legalidad y la relación entre ley y reglamento negando la existencia de toda reserva reglamentaria en el EAPV que pudiera desplazar la aplicación de la ley, IBARRA ROBLES, Juan Luis.(2007) «Incidencia del derecho público foral en la determinación de la Autonomía local en la Comunidad autónoma del País vasco» Anuario de Gobierno Local 2006, 2007, 507-545orri.

³⁹ Ibidem 589-589orr

calificación de ley a un tipo de normas como las NNFF, que «(...) actúan en un subsistema normativo diferente, aunque interrelacionado (...)». Por eso, señala que disponen de «(...) una fuerza normativa activa que es equivalente a la ley y ello, principalmente, si se ocupan de espacios reservados, material o formalmente a la ley, ya sea esta estatal o autonómica”

Bukatzeko eta autore honek egindako ondorioekin bat eginez, Martinez Etxeberriaren ustez, Arau foralak eta bereziki finantza arloko arau foralek ez daukate lege maila, baina erregelamenduak baino askoz gehiago dira.⁴⁰

Lurralde Historikoen Legearen 16. artikulua arabera, lurralde historikoek Euskal Autonomia Erkidegoko karga orokor guztiei eusten lagunduko dute, horiek beren gain hartu ez badituzte. Horretarako, foru-aldundiek ekarpenak egingo dizkiote Ogasun Nagusiari. Beraz, barne-finantzaketako sistema⁴¹, Arrisku Partekatua Printzipioan oinarritua, ekarpenen banaketa horizontalean oinarritzen da funtsean, eta, hori ezartzeko, Herri-Dirubideen Euskal Kontseilua sortzen da, osaera parekidea duena, baina exekutiboetara mugatua, eta gai horrek zenbait eztabaida sortu ditu.

Kontzertu ekonomikoko legea

Espainiako estatua eta Euskadiko autonomia erkidegoaren arteko erlazio ekonomiko finantziarioak Kontzertu ekonomikoan oinarritzen dira Gernikako Estatutuak ezartzen duen bezala. Erlazio horrek segurtasun juridikoa izan dezan lege batean ezarri behar dira erlazioaren oinarriak, lege hori, Kontzertu Ekonomikoaren Legea izango litzateke.

Askotan aipatu dudan bezala Euskadi eta Nafarroaren kasua eta Espainiako estatuan dauden beste autonomia erkidegoen arteko erlazio finantziarioa ezberdina da, non besteen erlazioak Autonomia-erkidegoen finantzaketari buruzko irailaren 22ko 8/1980 Lege Organikoak arautzen dituen harreman ekonomiko-finantzarioak, eta Euskadik Ekonomia Itunaren eredia du; eredu horretan, lurralde historikoek zeregin garrantzitsua hartzen dute beren gain, dituzten zerga- eta bilketa-ahalmenak baliatuz. Kontzertu Ekonomikoaren terminoa Gernikako Estatutuko 41 artikuluan ezartzen da.

⁴⁰ Martinez Etxeberria, Gonzalo. (2014). «*La defensa jurídica de un derecho Histórico paradigmático: El Concierto Económico vasco*» (490orr). Tesis Doctorales de la Hacienda Foral.

⁴¹ Atela Uriarte, Aizbea. (2021). «*El desafío del fortalecimiento de la autonomía municipal: La Ley de Instituciones Locales de Euskadi* » (270 orr). Euskadiko Autonomia Elkar-terko Administrazioa.

41 artikulua hurrengo dio⁴²:

1-Estatu eta Euskal Herriaren arteko zerga mailako harremanak, antzinako erara, kontzertu ekonomiko eta Hitzarmen sistemaz erregulatuak izango dira.

2-Kontzertu Erregimenaren edukiak ondoko printzipio eta oinarriak errespetatuko ditu eta beroiei egokituko zaie:

a) Herrialde Historikoetako instituzio bidezkoek, bere esparruan, zerga erregimena mantendu, ezarri eta erregulatu ahal izango dute, Estatuaren egitura orokor inpositiboari, kontzertu berean Estatuarekin koordinazio, fiskal harmonizazio eta kolaborazioa izateko agertzen diren arauak eta Komunitate

b) Autonomoaren barruan helburu berdinak lortzeko euskal Biltzarrak diktatuko dituen kasu eginez. Kontzertua Legez onartuko da.

Zerga guztien exakzio, gestio, likidazio, bilketa eta inspektzioa, Herrialde Historiko bakoitzean, bertako Diputazio Foralak egingo dute Aduanaren Errentan sartzen direnak eta gau-egun Monopolio Fiskalen bidez biltzen direnak izan ezik. Hori guztioi guztiori Estatuarekin behar den kolaborazioaren eta beronen goi- goiko inspektzioaren kaltetan izan gabe.

c) Herrialde Historikoetako erakunde kompetenteek gisako akordioak hartukodituzte Estatuak lurralde komunari aplikatzea erabakiko dituen exepzio eta koituntura jitezko arau fiskalak bakoitzak bere lurraldean aplikatu ditzan, haietan hainbat denbora egingo dutelarik zutik hemengoetan.

d) Euskal Herriak Estatuari egingo dion ekarpena kopuru oso bat izango da, eta komunitate autonomoak bere gain hartzen ez dituen Estatuak hartutako kargen kontribuzio gisa lurralde bakoitzak emandako kopuruez osatuko da.

e) Aipaturiko kopuru osoa osatzen duten lurralde bakoitzari dagozkion kopuruak izendatzeko eta erabakitzen diren epeetan berritzeko, batzorde misto bat osatuko da, zein alde batetik Diputazio Foral bakoitzeko ordezkari batez eta Euskal Gobernuak beste hainbestez eta, bestetik, Estatu Administrazioak beste hainbeste ordezkari osatuko baita. Honela ematea erabakiko den kopurua, Legez onartua izango da Kontzertuan seinalatuko den aldioro, urteka gaurkotu daitekeelarik Kontzertuan seinalatuko den prozeduraz.

f) 138. eta 156. artikuluetan aipatzen den solidaritate printzipioaren arabera aplikatu da Kontzertu erregimena.

g) Konstituzioan eta Estatu honetan erabakitakoaren arabera antola daitekeen beste edozein sarrera.

Aurreko artikuluko aurreikuspena garatuz, Gernikako Estatutua in fine, Kontzertua Ekonomia Gorte Nagusiei buruzko 12/1981 Legearen bidez onartu zen. Estatu osteko lehen Ekonomia Ituna da hau. Gaur egun indarrean dagoena maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak onartutakoa da.

Larrazabal Basañezek esaten duen bezala, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta

⁴² Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatutua. (1979). Artikulua [41].

Estatuaren arteko finantza- eta zerga-arloko harremanak Ekonomia Itunaren sistemaren bidez arautzen dira. Lehen aipatu dudak bezala⁴³, Espainiako estatuan 2 sistema ezberdindun beharko genituzke, alde batetik erregimen komuneko autonomia erkidegoak eta bestetik autonomia foralak (Euskadi eta Nafarroa). Honetan ezberdintasun bat dago, lurralde foralen kasuan; haiek izango dira zergak batuko dituztenak eta geroago zerga horien zati bat emango diote Estatuari Kupo gisa Euskal autonomia Erkidegoaren kasuan eta ekarpen gisa Nafarroaren kasuan. Aldiz, erregimen komunean Espainiako estatuak zergak batuko ditu eta gero zati bat emango dio autonomia erkidego bakoitzari.

Bestalde, De La Hucha Celadoren arabera, Ekonomia Ituna da EAE osatzen duten lurralde historikoen autogobernuaren adierazpenik garrantzitsua, eta horrek, zeharka, eragina du integratzen diren probintziaz gaindiko lurralde-erakundearen autonomian⁴⁴. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko edozein jarrera politikok finantza-autonomiatik abiatu behar du. Ekonomia Ituna ez dator EKren 156tik 158ra, 1. xedapen gehigarritik baizik. Baieztapen hori Alonso Arcek⁴⁵ eta Larrazabal Basañezek⁴⁶ ere defendatzen dute.

Aizbea Atelaren ustez, Ekonomia Itunari buruzko azterketa orori ekitean, bi alderdi bereizi behar dira: bata, materiala, eta bestea, formalak. Alderdi materialak adostasun-oinarriak eta printzipioak islatzen ditu harreman ekonomiko-finantzarioetan. Alderdi formalak, berriz, lege-indarra ematen dio akordioari⁴⁷, zehaztasun handiagoz. Alderdi materialetik, De La Hucha Celadoren, Ekonomia Ituna «(...) Estatuaren eta foru-lurraldeen arteko zerga-boterearen baterako partaidetza gauzatzeko akordio-araua da, eta zerga baten edo besteen ordainarazpena baldintzatzen duten lotura-puntuak finkatzen ditu⁴⁸. Formaren aldetik, Ekonomia Itunaren Legea, begi kolpean, Estatuko lege arrunta da. Hala ere, Larrazabal Basañezek dioten bezala, «(...) EK-k eta Gernika Estatutua lege

⁴³ DE LA HUCHA CELADOR, Fernando., «*El régimen jurídico del Concierto Económico*». Ad concordiam, Bilbao, 2006, 65 orr

⁴⁴ Atela Uriarte, Aizbea. (2021). «*El desafío del fortalecimiento de la autonomía municipal: La Ley de Instituciones Locales de Euskadi*» (262 orri). Euskadiko Autonomia Elkarteko Administrazioa.

⁴⁵ ALONSO ARCE, I., «*La normativa tributaria general y el Concierto Económico*». Forum Fiscal, núm. 206, febrero 2015, 9 orr

⁴⁶ LARRAZABAL BASAÑEZ, S., «*Encaje constitucional, estatutario y legal del concierto económico como actualización de los derechos Históricos*». Boletín JADO, Año XII, núm. 24. Academia Vasca del Derecho, Bilbao, junio 2013, 197-198 orr

⁴⁷ Atela Uriarte, Aizbea. (2021). «*El desafío del fortalecimiento de la autonomía municipal: La Ley de Instituciones Locales de Euskadi*» (262 orri). Euskadiko Autonomia Elkarteko Administrazioa

⁴⁸ DE LA HUCHA CELADOR, Fernando., «*El régimen jurídico...*», aurretik aipatua, 44 orr

hau onartzeko prozedurarik adierazten ez duten arren, tradizio itungilea edo aurreko itunak onartzearen oinarri izan ziren akordioa ezarri zen. Ezin da esan Ekonomia Ituna lege arrunta denik⁴⁹; aitzitik, esan beharko litzateke legea dela, lege organikoaren kasuan Autonomia Estatutuari dagokionez, araua ordenamendu juridikoan sartzen duen iturria. Larrazabalek dioen bezala akordioa Euskal Herriaren kultura juridikoaren parte da, eta bere bidea izan da herri txiki eta konplexu baten barruko barne harremanak eta Koroarekiko edo Estatuarekiko harremanak ulertzeko.

Razquin Lizarragak gai honi buruz ere bere ideiak adierazi ditu, esanez Kontzertu Ekonomikoa Estatua eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko akordio bat dela, legea izanik akordio horri balio juridikoa ematen diona soilik. Orduan Kontzertu Ekonomikoko legek bigarren xedapen gehigarrian ezartzen duen bezala, bakarrik berriztu ahal izango da sortu zen prozedura jarraitzen baldin bada. Hau da, hemendik ondorioztatu dezakegu edozein berrizketa egiteko nahia baldin badago, beti izango da akordioa horren oinarria.⁵⁰

Konstituzio Auzitegiak berak, 1988ko apirilaren 26ko 76/1988 KAEren 9. OJn, azaroaren 25eko 27/1983 Legearen konstituzio-kontrakotasuna epaitzen baitu, Eusko Legebiltzarrak, Autonomia Erkidego osorako erakundeen eta bertako lurralde historikoetako foru-organoen arteko harremanei buruz, Ekonomia Itunari buruzko Legearen itundutako izaera aitortzen du, argi eta garbi, honako hau adierazten duenean⁵¹.

Aizbea Atelaren⁵² ustez, Ekonomia Itunaren Legeak berariazko izaera du, eta Estatututik hurbil dago, bai legea onartzeko edo aldatzeko moduari dagokionez, bai haren edukiaren alderdi substantiboari dagokionez. Bere alderdi materialean, lurralde historikoek Estatuarekiko zerga-arloan dituzten eskumenak zehazten dituen legea da, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren (autonomia erkidegoak eta lurralde historikoak) eta Estatuko Administrazioaren arteko harreman

⁴⁹ LARRAZABAL BASAÑEZ, Santiago., «Retos del autogobierno vasco para el siglo XXI: conocer el pasado, aprender del presente y soñar el futuro». HERMES-Revista de Pensamiento e Historia, núm. 55, 2017, .111orr

⁵⁰ RAZQUIN LIZARRAGA, M. M., «La inconstitucionalidad de las modificaciones unilaterales del Concierto Económico » (Comentario a la Sentencia del Tribunal Supremo de 28 de octubre de 1995)». RVAP, núm. 46, 1997, diciembre 1996,336orr.

⁵¹ no puede desconocerse que históricamente la determinación de las aportaciones de las Haciendas forales a la estatal ha venido realizándose mediante el sistema de conciertos, que implica un elemento acordado o paccionado, integrante del núcleo del régimen foral”

⁵² Atela Uriarte, Aizbea. (2021). «El desafío del fortalecimiento de la autonomía municipal: La Ley de Instituciones Locales de Euskadi» (263 orr). Euskadiko Autonomia Elkarreko Administrazioa.

ekonomiko-finantzarioak definitzen ditu. Horrekin erlazioa daukan 5 urteko lege espezifikoak bat egiten dute aurrekoan esandakoarekin, non 5 urteko lege horietan adosten da ze nolako ekarpena egin behar duen Euskal Autonomia Erkidegoak Estatuari kupo gisa.

Jimenez Asensiok esandakoa ezarriko dut, oso garrantzitsua ikusten baitut eta berarekin bat egiten dudalako. Ekonomia Ituna funtsezko arautzat jo daiteke lurralde historikoek zergen arloan dituzten eskumen-eremuak zein diren ulertzeko, eta, beraz, ukaezina da eskumenak esleitzeko araua dela, edo, nahi izanez gero, materialki estatutarioa. Kontzertuak izaera ia estatutarioa du, eta konstituzionaltasunaren bloke dei genezakeenaren barruan sartzen da.⁵³

Honekin bukatzeko nire ustez garrantzitsuena dena, Kontzertu Legeak onartzen du Lurralde Historikoen eskumen finantzarioa hemendik ondorioztatu dezakeguna da Lurralde historikoek araugintza ahalmena daukatela zenbait gaitan, eta gai horietan emandako arauak, arau foralaren izaera izango dute. Bestetik Jimenez Asensioren ideiekin ados egonda uste dut Kontzertu Ekonomikoko Legeak izaera ia estatutarioa daukala eta hori Akordioen bitartez heldu dela, akordio baita erlazio honen muina.

Kontzertu Ekonomiko Legea eta beste lege guztiak aztertu ondoren sintesi moduan eta hainbat autoreren iritziak islatu ondoren, nire ustez, lurralde historikoak ezin ditugu probintzia soil bat izango balira bezala katalogatu. Apirilaren 26ko KA 76/1988 Epaia erakunde berezi horien izaera juridikoari buruzko gako garrantzitsuak ematen ditu. Hala, epai horretan ezartzen denez, lurralde historikoak zuzenbide publikoko erakunde juridikoak dira, eta hierarkikoki kokatuta daude udal-mailako toki-erakundeen eta autonomia-erkidegoen berezko erakundeen artean, Konstituzioan behar bezala definituta agertzen den Estatuaren lurralde-antolakuntza handiaren barruan⁵⁴. Ramon Rodriguezek emandako teoria horrek eskumen juridikoak daukan teoria bakarra da, Lurralde historikoak Espainiar Konstituzioko lehenengo xedapen gehigarrian konstituzionalki onartuak dira, baina sententzia honek lortzen duena garantia instituzional bat ematea. Zergatik?? Xedapen gehigarrian ezartzen den eskubide historikoak zeintzuk dira?? Antzinarora baldin bagoaz Lurralde Foralek zeuzkaten eskubide guztiei buruz hitz egiten egongo ginateke, hau da:

⁵³ ⁵² JIMÉNEZ ASENSIO, R., «*El sistema de fuentes del derecho...*», aurretik aipatua., 144.orr

⁵⁴ Martínez Etxeberria, Gonzalo. (2014). «*Los Territorios Históricos vascos y su producción normativa foral: Unas realidades fronterizas en busca del mejor encaje en el sistema*» (19 orr). AD CONCORDIAM

Hezkuntza, osasuna, fiskaltza...., Baina gaur egungo eskubidea aztertzen baldin badugu bakarrik hiru esparru barnebiltzen dira. Honako hauek; Errepideak, fiskaltza eta gizarte egintzak sartzen dira.

Oraingoan autore batzuen iritzia aztertuko ditut⁵⁵: Lucas Verduren ustez; Lurralde historikoek, euskal gizartean errotuta daudenek, foraltasunaren jarraitutasuna adierazten dute, beren iraganean oinarritutako antolamendu juridiko baten bidez⁵⁶. Euskal Herriak babestuta, beren eskubide historikoak kontserbatzeko eta eguneratzeko baliabideak dituzte, eta ezinbestekoak dira euskal kultura- eta lege-nortasuna babesteko. Martinez Etxebarriak, bat egiten du Verduren Lurralde historikoak gizarte-erakunde iraunkor gisa kalifikatzeko zentzuan, eta horiek beren sustraiak hazteko zentzuan euskal gizartean, gizarte horrek aspaldidanik identifikatu ditu egungo lurralde historikoetako (foru aldundia eta batzar nagusiak) erakundeak foru-izaera osoko erakunde propio gisa⁵⁷. Bi autore hauek esaten dutenarekin bat egiten dut euskal gizarteak bermatu dituela esaten dutenean, azken finean aurrekoan aipatu dudana bezala, eskubide hauek Xedapen iraunkorrean eta Gernikako Estatutuan finkatuak daude eta dakigunez bi testu horiek herritarren oniritzia izan dute. Larunbe Biurrunen, ustez, lurralde historikoek izaera duala dute, alde batetik tokiko erakundeak dira eta, bestetik, izaera hori galdu gabe, izaera politikoko erakunde publiko autonomoak dira.⁵⁸

Autore batzuen iritziz, egin beharko litzatekeena hurrengo da; lege Adhoc baten bitartez eskubideak zeintzuk diren ezarri. Hau ez da inoiz egin, azken finean lurralde hauei ez zaie ondo iruditzen, zerrenda itxia egitea geroago zerrenda hori irekitzeko ahalmena murrizta izango delako. Horren inguruan hain garrantzitsua den Auzitegi Konstituzionaleko 76/1988 epaian argi esaten du nola dagoen araututa⁵⁹. Konstituzioak ez du zerrendarik ezartzen eta Gernikako Estatutuak

⁵⁵ Martinez Etxeberria, Gonzalo. (2014). « *Los Territorios Históricos vascos y su producción normativa foral: Unas realidades fronterizas en busca del mejor encaje en el sistema* » (19 orr). AD CONCORDIAM

⁵⁶ LUCAS VERDÚ, Pablo, «*Los derechos Históricos como constitución sustancial del Pueblo vasco*» en AAVV, Congreso sobre los derechos Históricos vascos., gobierno vasco, Vitoria, 1988, 228orr

⁵⁷ Martinez Etxeberria, Gonzalo. (2014). «*Los Territorios Históricos vascos y su producción normativa foral: Unas realidades fronterizas en busca del mejor encaje en el sistema* (20 orr). AD CONCORDIAM.

⁵⁸ LARUMBE BIURRUN, Kepa, «*Naturaleza jurídica dual de las Instituciones Forales de los Territorios Históricos*», Jornadas de estudio sobre la actualización de los derechos Históricos, 1986. 499orr

⁵⁹ 76/1988 Epaia: Adierazi dutenez, Konstituzioak ez du eskubide historikoen zerrendarik ezartzen; aitzitik, borondatez, kontzeptu zehaztugabea erabiltzen du, eta, beraz, eskubide historiko bakoitzaren existentzia kasuz kasu egiaztatu beharko da, eta Autonomia Estatutuak eskubide horiek errespetatzeko klausula orokor bat ezartzen du, 37; artikulua

bere 37. artikulua zerrenda bat egiten du laguntza modura. Razquin Lizarragaren bat egiten dut esaten duenean lurralde historikoen probintzia-maila gainditzen dutela, eta, ondorioz, pertsona bakarreko autonomia-erkidego batekin gehiago parekatzen direla probintziako toki-erakunde batekin baino. Gorago aipatu dudan bezala, ados nago Razquin Lizarragarekin, Lurralde historikoetako Batzar nagusiek autonomia erkidego baten parlamentua daukan izaera berdina daukatelako, haien ordezkariak sufragio unibertsalez aukeratuak izan dira eta nire ustez ezberdintasun nabariena da⁶⁰, alde batetik, lege mailako arauak garatu ahal dituela eta bestetik, Batzar orokorrak norma mailako arauak egin ahal dituztela.

Bukatzeko Martínez Etxebarriak idatzitako liburu batean, Caño Morenolurralde historikoen definizio bat eskuratuko dut⁶¹, oso definizio sakona eta egokia dela uste dudalako.⁶²

Sententzia honetan ere oso ondo azaltzen da Euskal Gobernuak Lurralde Historikoko legeko 6.1 artikuluan xedatzen denaren interpretazioa nola egiten duen. Bertan, LHT eta Estatutuan ezartzen diren eskumenak Lurralde Foralak bereganatzen ez dituen horiek guztiak EAEren gain eroriko direla, hau da, ez du esaten inoiz ere lista itxia dela, aitzitik Lurralde Foralak bereak direla demostratu ezin duenean orduan EAEren eskumenak izango direla⁶³.

bereko 3. paragrafoak eredu edo zerrendazko zerrenda bat dakar, lurralde historikoei dagozkien eskubide eta eskumenen zerrenda agortu nahi ez duena.

⁶⁰ RAZQUIN LIZARRAGA, Martín, «Organización foral y hecho diferencial» en la obra colectiva *dirigida por COELLO MARTÍN, Carlos, El Estado Autonómico y Hecho diferencial de Vasconia*, Eusko Ikaskuntza/ Sociedad de Estudios Vascos, Donostia - San Sebastián, 2000

⁶¹ CAÑO MORENO, Javier, « *Derecho autonómico vasco*, Universidad de Deusto, » 2007., 185 – 189orr.

⁶² TTHH como entes territoriales públicos, dotados de organización, instituciones y régimen privativo de naturaleza política, con competencias propias de carácter normativo, de desarrollo y ejecución, con financiación propia y autonomía presupuestaria propias, añadiendo además que los Territorios Forales gozan de una garantía y protección constitucional expresas, a través de la Disposición Adicional Primera de la Constitución. Esta protección abarca tanto al sujeto político como al objeto, a los derechos Históricos entendidos tanto como derechos subjetivos o reconocimiento de facultades constituyentes y decisorias, como en sentido objetivo o Régimen Foral integrado por Instituciones y derechos o competencias históricas o actuales. Esta protección es, a su vez, compatible con una actualización general del Régimen Foral que se realiza a través de los Estatutos y que, por calificarse de “general”, abarca tanto al sujeto como al objeto de los derechos Históricos

⁶³ 76/1988 epaia: LHLk lurralde historikoen eskumenen zerrenda bat zerrendatzen du. Zerrenda horretan sartzen dira, batetik, Autonomia Estatutuan berariaz aitortutako eskumenak (euskal legegileakukiezinak direnak), eta, bestetik, bertan aipatzen ez diren beste eskumen batzuk, eskusiboak zein garapen- eta betearazpen-eskumenak. Eskumen horiek lurralde historikoei esleitzen dakizkieke, Estatutuaren 37.3 f) artikulua. Eta, behin ze-


Lurralde historikoen kasua ezberdina dela ondo ondorioztatzen du Martinez Etxebarriak, non esaten baitu Burgoseko probintziek eskumen batzuk dauzkatela, eskumen hauek udalez gaindikoak dira (Supramunicipal).⁶⁴ Geureak dauzkaten eskumen batzuk ere badauzkate hauek Xedapenetik lortutakoak, lehen aipatutako 3 gai horietan eskumen dauka, horietako bietan ez dira arazo handirik egoten, hirugarrengoan izaten dira talka gehienak. Zergatik?? Kaleko jendeak dirua garrantzitsua delako esango lukete, baina gai horretatik haratago doan arrazoiengandik sortzen dira talkak. Zuzenbidea ikasten dudan heinean, talka horiek zergatik sortzen diren aztertu beharko nuke, eta ikerkuntza horretan nenbilenean konturatu nintzan talka hori eskumen horiek onartzerako orduan sortzen direla zergatik da? Azken finean eskumen horiek Parlamentu batek onartu behar dituelako. Orduan, lurralde historikoetako Batzar orokorrak sufragio unibertsalez aukeratuak direnez, Parlamentu baten izaera daukala ondorioztatu dezakegu, baina ez da Parlamentu bat organo Administratibo bat baizik.

Fernández Rodríguez: Lurralde Historikoen eta Estatuko probintzien arteko konparaketa bat egiten du hau esanez: argi dago foru-lurraldeak probintziak direla, erakunde-profil berezia dutenak, baina probintziak, azken finean ". Autoreak aipatzen duen berezitasun hori, berez eta nire ustez, hain da garrantzitsua, non entitatearen izaera juridikoa determinatzen baitu, eta, beraz, ez dira probintzia hutsekin identifikatu behar, beste errealitate berezi bat baitira, halakotzat identifikatzaile desberdin bat merezi dutenak.⁶⁵

rrenda hori ezarrita, Lurralde Historikoen Legearen 6.1 artikulua eskumen-sistema ixteko arau gisa balio du: Autonomia Erkidegoari dagozkion gainerako eskumenak, Legear jasota ez daudenak, edo geroagoko beste batzuetan lurralde historikoei esleitutakotzat aitortzen direnak, erakunde erkideei dagozkiela jotzen

⁶⁴ Martínez Etxebarria, Gonzalo. (2014). «Los Territorios Históricos vascos y su producción normativa foral: Unas realidades fronterizas en busca del mejor encaje en el sistema » 21 orr. AD CONCORDIAM.

⁶⁵ FERNÁNDEZ RODRIGUEZ, Tomás Ramón, «Los derechos Históricos de los Territorios forales: Bases constitucionales y estatutarias de administración foral vasca, » Civitas/ Centro de estudios constitucionales, Madrid, 1985



Kontzertu Ekonomikoaren esparru tributarioa

Kontzertu Ekonomikoa nola arautzen den eta zer nolako organo juridikoak errespetatu behar dituen aztertu ondoren, oraingoan Kontzertu Ekonomikoaren esparru tributario eta finantzieroa aztertuko dugu, zergen arteko ezberdintasunak zer nolako ezberdintasunak sortzen dituen izaera juridiko honetan aztertzeko.

Esparru tributarioa aztertzeko MARTINEZ ETXEBERRIA autoreak bere tesian islatutakoa kontuan hartuko dut, uste dudalako ondo identifikatzen dela Kontzertu Ekonomikoaren esparru tributarioa.⁶⁶

Ekonomia Itunaren lehen kapituluak zerga-sistemari dagokion guztia arautzen du, eta atalean sistema hori arautzen duten arau orokorrak aipatzen dira. Horrela, 1979ko EAEEren 41. artikuluan ezarritakoaren arabera, Kontzertu Ekonomikoari buruzko 12/2002 Legearen 1. artikuluan jasotakoaren arabera, Euskal Kontzertu Ekonomikoaren sistema Araba Bizkaia Gipuzkoako Lurralde Historikoei dagokie, eta horien legegintza-organoak, kasu honetan, lurralde bakoitzeko Batzar Nagusiak izango dira bakoitzaren lurralde historikoko zerga-eta zerga-araubidea arautzen duen araudiak ezartzen dituenak.

Hori bai, lurralde historiko bakoitzak ezartzen duen sistema fiskal bakoitzak 12/2002 Kontzertu Ekonomiko legearen 2 artikuluan ezarrita dauden printzipioak errespetatu behako ditu.

⁶⁶ Martinez Etxeberria, Gonzalo. (2014). «*La defensa jurídica de un derecho Histórico paradigmático: El Concierto Económico vasco*» (135 orr). Tesis Doctorales de la Hacienda Foral.

12/2002ko 2 artikuluan hurrengo ezartzen da:⁶⁷

Lurralde historikoek ezartzen duten zerga sistemak printzipio hauei jarraituko die:

Lehenengoa. Solidaritatea errespetatzea, Konstituzioan eta Autonomia Estatutuan ezarritako moduan.

Bigarrena. Estatuaren zerga-egitura orokorrari erreparatzea.

Hirugarrena. Estatuarekiko koordinazioa, harmonizazio fiskala eta lankidetzak, Ekonomia Itun honetako arauen arabera.

Laugarrena. Lurralde historikoetako erakundeen arteko koordinazioa, harmonizazio fiskala eta elkarlana, Eusko Legebiltzarrak horretarako ematen dituen arauen arabera.

Bosgarrena. Espainiako estatuak sinatu eta berretsitako nazioarteko itun edohitzarmenen mende jartzea, edo estatu horri atxikitzea. Bereziki, zergapetze bikoitza saihesteko Espainiak sinatutako nazioarteko hitzarmenetan eta Europar Batasuneko harmonizazio fiskaleko arauetan xedatutakoa bete beharko da, eta hitzarmen eta arau horiek aplikatzearen ondorioz egin beharreko itzulketak bere gain hartu beharko ditu. Bi. Itun honetako arauak Zergei buruzko Lege Orokorrean zerga-arauak interpretatzeko ezarritakoaren arabera interpretatuko dira.

Bestetik 2 artikuluan xedatzen dena errespetatu ondoren, 12/2002 legeko 3 artikuluan ezartzen harmonizazio legea errespetatu behar da

12/2002 legeko 3 artikulua hurrengo xedatzen du:

Lurralde historikoek zerga araudia egitean:

A) Tributuen Lege Orokorra egokituko dira terminologiari eta kontzeptuei dagokienez, Ekonomia Itun honetan ezarritako berezitasunei kalterik egin gabe.

B) Estatuak gainerako lurraldeetan dagoenaren pareko zerga-presio efektibo globalamantenduko dute.

C) Espainiako lurralde osoan pertsonen zirkulazio- eta kokapen-askatasuna eta ondasunen, kapitalen eta zerbitzuen zirkulazio askea errespetatu eta bermatuko dituzte, diskriminazio-ondorioz sortu gabe, enpresa-lehiarako aukerei kalterik egin gabe eta baliabideen esleipenean distortsiorik eragin gabe.

D) Abeltzaintza-, meatzaritza-, industria-, merkataritza-, zerbitzu-, lanbide- eta arte-jardueren sailkapen bera erabiliko dute, lurralde erkidean egiten diren jardueren banakapena alde batera utzi gabe.

12/2002 legeko bigarren atalean zerga eta tributuo bakoitzeko araugintza garatzen da. Beti ere, zerga eta tributuen arteko bereizketa bat egin behar dugu. Alde batetik hitzartutako zergak (Zuzenekoak) egongo dira eta bestetik, ez hitzartutakoak (Zeharkakoak). Zuzeneko zerga eta tributuoak hauek Kontzertu Ekonomikoaren barruan sartuko litzateke eta lurralde historikoak hauen arautzea,

⁶⁷ 2002/12 Kontzertu ekonomikoaren legea. Boen 2002ko maiatzaren 24a

kudeatzea, ikuskatzea, berrikustea eta bilketaz arduratuko dira. Aldiz lurralde historikoek arautzea, kudeatzea, ikuskatzea, berrikustea eta bilketaz arduratzen ez baldin badira eta hau Estatuko Administrazioaren menpe baldin badaude, tributu eta zerga hauei ez itundutakoak deituko diegu.

Zeintzuk dira tributu zuzenak direnak eta lurralde historikoek ahalmen araugile guztia daukate gaitan⁶⁸.

-Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga (PFEZ)

-Ondarearen Gaineko Zerga

-Sozietate Zerga

-Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga

-Ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga (Truke letra eta sozietate eragiketak)

-Errentaren gaineko zerga bizitzen ez diren pertsonen gain

Arau orokorra: Foru Aldundiak zerga-kontzeptu guztiak arautzeko erabateko gaitasuna du (nahiz eta, kasu batzuetan, zergen elementuren bat konfiguratzekoan mugak izan)

-Araudi erkideko zerga itunduak

- Gainerako tributuak, batez ere lurraldez kanpoko ñabardura dutenak (eta, beraz, Estatuari dagozkionak)
- Arau orokorra: foru-araugintzarako gaitasunik eza, lurralde erkideko araudia aplikatzen da, eta foru-erakundeek zergen elementu formalak konfiguratzeko askatasuna baino ez dute (sarrera-epeak eta aitortpen-ereduak), eta, kasu batzuetan, araugintzarako nolabaiteko gaitasuna

Bestetik, zuzeneko zerga eta tributuetan bestelako batzuk daude, hauek araugintza komuneko tributuak dira, Erregulazioari dagokionez, Estatuak unean-unean ezarritako arau substantibo eta formal berberak arautzen dituzte:

-Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergak

-BEZa.

-Seguruen primen gaineko zerga

-Zerga bereziak:

-Minoristen hidrokarburoen salmenten gaineko zergan

⁶⁸ Ad Concordiam-en, gai horiek xehetasunez eta koadroen bidez azalduta ikus daitezke. Taula horietan biltzen dira zerga itunduen zerga itundu bakoitzean aplikatzekoak diren lotura, arau, ikuskapen eta ordainarazpen puntuak. <https://conciertoeconomico.org/eu/profesional-eta-ikasleentzat/itunaren-azterketa/zerga-harremanak/itundutako-tributuak/>

Hau da, Zeharkako tributu hauetan, onartzen da horietan euskal lurralde historikoetako erakunde eskudunek beren aitorten-ereduak eta diru-sarrerak onartzea edota likidazio-aldi bakoitzerako diru-sarreraren epe propioak ezartzea baimentzen bada ere. Beti ere, estatuko administrazioak ezarritakoa zapaldu barik. Bestetik, lehen aipatu ditudan itundu gabeko tributu eta zergak horiek 12/2002 legeko 35 artikuluan ezarritakoan daukate oinarri.

35 artikulua hurrengoa esaten du: Zeharkako gainerako zergek Estatuak unean-unean ezarritako oinarritzko printzipio, arau substantibo, zergapeko egitate, salbuespen, sortzapen, oinarri, tasa, tarifa eta kenkari berberak izango dituzte.⁶⁹

Kontzertu Ekonomikoaren esparru finantzarioa

Esparru finantzarioa aztertuko dugu, honetan ere Martinez Etxeberriaren tesiaren laburpen bat egingo dut jarraian, uste dudalako berak egindako laburpena oso ondo azaldua eta sakonduta. Horren ondorioz, esparru honetan irakurriko duzuen tesi horretatik atera dudana izango da beti ere nire iritzia islatzen ez baldin bada. Finantza arloa 12/2002 Kontzertu Ekonomikoaren legeko 48 artikuluan ezarrita dago.

48 artikuluan hurrengoa esaten da:⁷⁰

Estatuaren eta Euskadiren arteko finantza-harremanak honako printzipio hauen arabera arautuko dira:

Lehenengoa. Euskal Autonomia Erkidegoko erakundearen autonomia fiskala eta finantzarioa, beren eskumenak garatu eta gauzatzeko.

Bigarrena. Solidaritatea errespetatzea, Konstituzioan eta Autonomia Estatutuanezarritako moduan.

Hirugarrena. Estatuarekin koordinatzea eta lankidetzan aritzea aurrekontu-egonkortasunaren arloan.

Laugarrena. Euskadik Autonomia Erkidegoak bere gain hartzen ez dituen Estatuaren kargei egiten dien ekarpena, Ekonomia Itun honetan zehazten den moduan.

Bosgarrena. Estatuak toki-erakundearen arloan une bakoitzean betetzen dituen finantza-tutoretzako ahalmenak Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde eskudunei dagozkie, eta horrek ez du esan nahi, inola ere, EAEko toki-erakundearen autonomia-maila araubide erkidekoek dutena baino txikiagoa denik.

49 artikuluan kontzeptu bati buruz hitz egiten du,⁷¹ KUPO kontzeptua geroago ikerkuntzahonetan gehiago aterako den termino bat izango da termino honek

⁷⁰ KonEk. 48 art., II. kapituluaren barruan, Estatuaren eta Euskadiren arteko finantza-harremanak arautzen dituzten printzipio orokorrak ezartzen ditu.

⁷¹ KonEk. 49 art. Kupoaren definizioa ezartzen du.

egiten duena hurrengo da: Euskadik Estatuari egingo dion ekarpena kupo orokor bat izango da, lurralde historiko bakoitzari dagokionaz osatua, Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain hartzen ez dituen Estatuaren karga guztietarako ekarpen gisa.

Honekin bukatzeko esan behar da 1981 urtean ezarri zen kupo eta gaur egungoa berdina dela, 6,24^a. Nahiz eta gaur egun 5 urtero berrikusi, kupoaren ehuneko ez da aldatu.

Ezarritako kantitatea murriztu edo handitu daiteke Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen gehiago lortzen edo galtzen dituen heinean. Kupo honen ordainketa 60 artikuluan ezartzen denaren bezala hiru zatitan ordainduko zaio Estatuko ogasun publikoari.

Ekonomia itunaren historia eta araugintza ahalmena eta beraren osaketa nola banatzen den aztertu ondoren, hurrengo puntuan Ekonomia Itunaren ezaugarriak eta aplikazio eremua aztertuko dut.

Ekonomia Itunaren ezaugarriak eta Kupoaren aplikazio eremua

Ekonomia Ituna artikulatu bakarreko lege gisa tramitatzen da, eta eranskin batean jasotzen du Itunaren testu artikulatua, hiru kapitulutuan egituratua: I. Zergak, II. Finantza harremanak eta III. Batzorde eta Arbitraje Batzordea. Bestetik, testu dinamikoa da, eta etengabe eguneratzen da, Batzorde Mistoko akordio-mekanismo horri eta Parlamentuko izapidetze anizkoitzari jarraituz (forukoa, autonomikoa eta estatukoa), bai edukiak aldatzeko/eguneratzeko, bai zerga berriak adosteko

Ekonomia itunaren ezaugarriak

Foru zerga- eta zerga-sistemak berezko printzipio orokor batzuk ditu, sistema horren ezaugarri eta indargarri⁷²:

- Euskadiko erakundearen autonomia fiskala eta finantzarioa.
- Elkartasuna errespetatzea.
- Estatuarekiko koordinazioa eta lankidetzeta, aurrekontuen egonkortasunari dagokionez.
- Euskadik Autonomia Erkidegoak bere gain hartzen ez dituen Estatuko kargei egiten dien ekarpena (kupo).

⁷² KonEk. 48 art., II. kapituluaren barruan, Estatuaren eta Euskadiren arteko finantza-harremanak arautzen dituzten printzipio orokorrak ezartzen ditu.

- Toki-erakundeen finantza-babesa: Euskal Autonomia Erkidegoan eskumena duten erakundeek Estatuak dituen berberak izango dituzte, eta ezin izango dute araubide erkideko erakundeek duten autonomia-maila baino txikiagoa izan.
- Estatuaren zerga-egitura orokorrari kasu egitea.
- Zerga-araudia egiterakoan Lurralde Historikoek errespetatu behar dituzten zerga-harmonizazioko arauak; horien artean, nabarmentzekoak dira Estatuko gainerako lurraldeetakoaren antzeko zerga-presioa izatea eta pertsonen, ondasunen, kapitalen eta zerbitzuen zirkulazio-askatasuna bermatzea.
- Lurralde Historikoetako erakundeen eta Estatuko Administrazioaren arteko lankidetzara-erakundeak, funtsean hiru jardueraren-eremuri eragiten dietenak: arau-proiektuen trukea, Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeek nazioarteko hitzarmenen negoziazioan eta aplikazioan parte hartzea eta informazioa trukitzea.
- Itundutako sistema bat da, tributuen kudeaketarako autonomia duen araugintzako ahalmen propioa garatzen duena eta aldebakarreko arriskua deritzona bere gain hartzen duena.

Itundutako sistema bat da: dakigunez Ekonomia Ituna hiru alderdien arteko negoziaketa batetik lortutako akordio bat baita. Negoziaketa hau egiteko batzorde mistoa sortzen da, Lurralde historiko bakoitzetik ordezkari bat doa, EAEko 3 kide, eta azkenik estatuko 6 kide. Honetan beharrezkoa da aho batezko adostasuna egotea, horretarako gaika egiten dute eztabaida (Zerga zuzenak, PFGZ,...). Lortutako akordioaren ostean, gobernuan aztertzen da eta artikulua bakarreko lege bezala onartzen edo atzera botatzen dute, ezin dute eraldaketarik egin. Paktu politiko bat da, eta EB hitzarmenak bezala onartzen dira.

Tributu-gaietarako berezko araugintzako ahalmena: Lurralde historikoetako erakunde eskudunek eta Estatuak zergen arloko arauak egiteko ahalmena dute, eta berezko tributu-sistema garatu eta egituratzen dute. Harmonizazio fiskalak eta araugintzako eta ordain-arazpeneko lotura-puntuek bermatzen dute tributu-sistemen garapen harmonikoa.

Hala ere ezaugarri honetan geldialdi bat egitea beharrezkoa ikusten dut⁷³, Aitor Orenak artikulua honetan aztertzen duen bezala, LHek araugintza boterea

⁷³ ORENA DOMÍNGUEZ, Aitor (2006), «Espaldarazo al concierto económico (sentencia de 6 de septiembre de 2006 del Tribunal de Justicia de la Unión Europea) (Asunto C-88/03) », Nueva fiscalidad Nº. 9, 2006, orr.28

daukate, baina botere hori ez da botere legegilea, baizik eta normatiboa. 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundeen arteko harremanei buruzko legeko 6.2 artikulua aztertzen baldin badugu, botere legegilea Eusko legebiltzarrari dagokio. *“En todo caso, la facultad de dictar normas con rango de Ley corresponde en exclusiva al Parlamento.”* Kasu honetan lurralde historikoen batzar orokorrak ez daukate ahalmen legislatiborik, EKko *“La Constitución ampara y respeta los derechos Históricos de los Territorios forales. La actualización general de dicho régimen foral se llevará a cabo, en su caso, en el marco de la Constitución y de los Estatutos de Autonomía”*, Azken batean, legereserbaren printzipioa, EKren 31.3 artikulua ñabardura bat egiten die Lurralde Historikoei buruzko Legearen 8.1 artikulua, beren eskumen eskusibokoak diren gaitan, kasuan kasuko foru- arauak ematen dizkiena araugintza-ahal sui generis bat aitortzen dienei.⁷⁴

Tributuak kudeatzeko autonomia: Nahiz eta Kontzertuaren ezaugarri nagusietako bat hau izan, egia esan ez dauka autonomia osoa bere tributuak kudeatzeko. Gaur egungo mundu honetan non EB ezarritako arauak oso murriztaileak diren, Kontzertuak harmonizazio legeak bete behar ditu, honen inguruan EBJA epai bat eman zuen Euskal lurralde historikoen “opor Fiskalen” gainean,

Aldebakarreko arriskua: Ezaugarri hau askotan aipatu dut, nire ustez ezaugarri garrantzitsuena baita, Estatuko beste autonomia erkidegoak, abantaila bat daukagula diote, baina egia esan abantaila hori ere desabantaila izan daiteke, euskal ekonomiak garai txarrak jasaten dituenean LHek inbertsioak egiteko ahalmen gutxiago izango dutelako, eta haien inbertsioak murrizten baldin badira orduan ekonomia ez da garatzen.

Ekonomia itunaren 4 ezaugarriak definitu ondoren, oraingoan nire ustez, Ekonomia itunari buruz hitz egiten dugunean, objektu garrantzitsuena denari buruz hitz egingo dut. Kontzeptu hau “kupo” izango litzateke.

Zer da “kupo” ?

Nahiz eta goiko lerroetan kupoari buruz hitz egin, beharrezkoa ikusten dut berriro ere honen definizioa argi islatzea. Hau, ekonomia itunaren 49 artikuluan ezarrita dagoena.⁷⁵ “Euskadik Estatuari egingo dion ekarpena kupo orokor bat izango da,

⁷⁴ *Ibidem*

⁷⁵ 2002/12 Kontzertu ekonomikoaren legea. BOen 2002ko maiatzaren 24a, 49. Art.

lurralde historiko bakoitzari dagokionaz osatua, Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain hartzen ez dituen Estatuaren karga guztietarako ekarpen gisa.”

Kupoaren definizio teorikoari dagokionez, kupo da EAEk bere gain hartu ez dituen eskumenetan Gobernu zentralak egindako gastua. Horiei bestelako finantza kontzeptu batzuk egokitu behar zaizkie, “ekuazioa” doituz. Horrela, aurreko kopuruari Gobernu zentralak itundu gabeko sarrerekin bildutakoa eta Gobernu zentralaren defizita kendu behar zaizkio (izan ere, euskaldunok gastu horietan parte hartu behar dugulako, sistemaren arabera).

Hau da, EAERI egotzi beharreko gastuari, bere gain hartu ez dituen eskumenengatik (BGHezE) kendu beharko zaizkio EAERI egotzi beharreko itundu gabeko sarrerak (IGS) eta EAERI egotzi beharreko defizita (D).

KUPOAREN DEFINIZIO TEORIKOA

- KUPOA** = EAEk bere gain hartu ez dituen eskumenetan Gobernu zentralak egindako gastua
 - Gobernu zentralak itundu gabeko sarrerekin bildutakoa
 - Gobernu zentralaren defizita
- = EAERI egotzi beharreko gastua, bere gain hartu ez dituen eskumenengatik (BGHezE)
- EAERI egotzi beharreko itundu gabeko sarrerak (IGS)
- EAERI egotzi beharreko defizita (D)

Norberak moldatua, AD CONCORDIAMetik

ADCONDORDIAMnetik ateratakoaren egozpen sistemaren laburpena hurrengo izango litzateke. Egozpen-sistemak Gobernu zentralaren gastuak eta diru-sarrerakesleitzen dizkio EAERI, bereganatu gabeko eskumenen arabeko kalkulu baten bidez. Prozesu horrek esan nahi du gobernu zentralak zenbat gastatzen duen Espainia osoan transferitu ez den eskumen bakoitzean. Gero, gastu osoaren ehuneko finko bat esleitzen zaio Autonomia Erkidegoari, irabazien adierazle gisa. Gainera, sistema hori itundu gabeko gastuak eta sarrerak zenbatesteko erabiltzen da, baita Euskadiri egotz dakioken defizitaren zatia zenbatesteko ere. Ekonomia Itunak ezartzen duenez, egozpen-indizeak, Lurralde Historikoen errentan oinarrituta Estatuko guztizkoarekiko, Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain hartu gabeko kargak finantzatzeko egin beharreko ekarpena zehaztuko du.

Laburbilduz, honako hauek ditugu: batetik, zerga-alderdiak (itundutako sistema izatea, zeinaren tributu-arautzeko ahalmena Lurralde Historikoetan baitago, haiek kudeatzeko autonomia eta hainbat administrazio-ahalmen), eta, bestetik,

finantza-alderdiak (alde bakarreko arriskuaren printzipioa eta kupoak)⁷⁶.

Laburrean

- EAEko finantziario-sistema propioa
- EAEn eta Espainiako Estatuaren arteko finantza- eta zerga-harremanak ezartzen eta arautzen ditu.
- Tresna juridiko gisa: Espainiako Gorte Nagusiek onartutako estatuko legea da
- Estatuari kupoak ordaintzea, EAEk bere gain hartu ez dituen eskumenengatik
- Alde bakarreko arrisku-sistema: EAE arduratzen da kudeaketaz, Estatuak esku hartu gabe.

EAEREN BEHIN-BEHINEKO KUPOAREN KALKULUA, 2022		
1.	Estatuko Aurrekontuak: gastuak	347.486.096,54
2.	EAEk bere gain hartutako zamak	114.775.397,82
	EAEk bere gain hartu ez dituen zamak, guztira (1 - 2) (1 - 2)	232.710.698,72
3.	<ul style="list-style-type: none"> • Lurraldeen arteko Konpentsazio Funtza • Erakunde publikoei eginiko transferentziak • Zorren amortizazioa eta korrituak 	
4.	EAEk finantzatu behar dituen zamak	14.521.147,60
5.	Itundu gabeko tributuak	746.921,43
6.	Tributu-izaera ez duten sarrerak	2.654.165,64
7.	Itundutako zuzeneko zergen ziozko egokitzapena	286.269,35
8.	Estatuak lortutako sarrerengatik egokitzapen eta konpentsazio guztiak, EAEn egotzi beharrekoak (5 + 6 + 7)	3.687.356,42
9.	Aurrekontuetako defizita	9.361.627,50
10.	Kupo likidoa (4 - 8 - 9)	1.472.163,68
11.	Beste konpentsazio batzuk <ul style="list-style-type: none"> • Arabari emaniko konpentsazioak 	4.426,53
12.	Ordaintzeko kupo likidoa (10 - 11)	1.467.737,15

Lehenengo puntuan Estatuaren aurrekontua egongo litzateke. Honetan Gobernu zentralaren gastu guztiak dira abiapuntua, Estatuko Aurrekontu Orokorretan jaso izan diren bezala.

Bigarren puntuan EAEk bere gain hartutako zamak deskontatuko dira, adibidez Hezkuntza eskuduntza, ..., dagokien ehunekoak kendu ondoren.

3. puntua: 1-2 eginez, EAEk bere gain hartu ez dituen zamak egongo dira. hau da, Estatuak egiten duen gastua Euskadik bere gain hartu ez dituen eskumenengatik. Kupoaren Legeak zehaztu ditu kalkulu horretarako irizpideak. Alde batetik, EAEk bere gain hartu ez dituen zamen zenbateko osoa kalkulatzeko

⁷⁶ Horri dagokionez, besteak beste, ALONSO OLEA (1995); ARANBURU URTASUN (2005); DE LA HUCHA CELADOR (2006); Zenbaitzuk. (2001); AIZEAGA ZUBILLAGA (koord.) (2003); ALONSO ARCE (koord.) (2003a), (2003b) (2002); MERINO JARA (2003).

metodoa ezarri du: Estatuko aurrekontuen gastu guztietatik kentzen du Euskadik bere gain hartu dituen eskumenei dagokien aurrekontuetako diru-izendapen osoa, Estatu mailari begira. Beste alde batetik, EAEk bere gain hartu ez dituen zamen izaerako hurrengo hiru kontzeptuak jaso dira, besteak beste: Lurralde arteko Konpentsazio funtsa, Erakunde publikoei eginiko transferentziak eta zorraren amortizazioak eta korrituak.

4 puntuan AEk finantzatu behar dituen zama guztiek adierazten dute Espainia osorako Gobernu zentralak duen gastua Euskadik bere gain hartu ez dituen eskumenengatik. Estatuko gastu osotik EAEk ordaindu behar duten zatia lortzeko, egozpen- indizea aplikatuko da. Funtsean, egozpen-indizea izango da Euskadiren errenta erlatiboa Espainiaren errentari begira. Ekonomi Itunean, indize hori ez da aldatu 1981ean kupoaren sistema berriro ezarri zenetik, hots, beti berdina izan da, %6,24. Hau da ($232.710.699 * \%6.24 = 14.521.147,60\text{€}$).

5 puntuan; Aurrekontuetako 1.etik 3.era bitarteko kapituluetan Estatuak lorturiko sarrerak, itundu gabeko zerga, tasa eta prezio publikoengatik, baldin eta Euskadik bere gain hartu ez baditu horien gaineko eskumenak. Sarrera horietatik garrantzitsuenak aduanetako eskubideak izango lirateke ($11.969.894,7 * \%6.24 = 746.921.43\text{€}$).

6 puntua: Estatuak lorturiko sarrerak, baldin eta tributu-izaera ez badute eta Euskadiri egotzi badakizkioke. Sarrera horiek Estatuko Aurrekontuetako 4.etik 8.era bitarteko kapituluetan sartzen dira (transferentzia arruntak eta kapitaleko transferentziak, ondare-sarrerak, inbertsioen besterentzeak eta finantza-aktiboen aldaketak). Hau da, ($42.534.705,8 * \%6.24 = 2.654.165,64\text{€}$).

7.Puntua: zuzeneko zergen bidez lorturiko sarrerak behar bezala balioestekoa egin behar den konpentsazioa, zergak Euskadiri eta Estatuari egotzi behar zaizkienean. Halakorik bi kasutan gertatzen da: Estatuko zorraren harpidedunen kasuan eta euskal lurraldeetan lan egiten duten Estatuko funtzionarioen kasuan. Bi kasuotan, Lurralde Historikoetan aurkeztutako aitorpenetan kendu egingo dituzte etekin horien gainean egin zaizkion atxikipenak (eta Gobernu zentralako Ogasunari ordaindu zaizkionak). Horiek horrela, Estatuak atxikipenak kobratzen ditu eta EAEk itzultzen ditu; horregatik, konpentsazio bat ezarri da.

8 Puntuan: Aurreko hiru kontzeptuen batura gobernu zentralak Euskadiri egotz diezazkiokeen diru-sarreraren guztizkoa da..

9 puntuan :Defizita itundu gabeko sarreraren artean sartu behar dugu eta, horregatik, Euskadiri egotzi behar zaio defizitengatik sarreretan EAERI dagokion

ehunekoak, Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain hartu ez dituen zamak Estatuak bezala finantzatu ditzan. Horretarako, Estatuko Aurrekontu Orokorretan jaso den defizitetik EAERI dagokion zatia kupotik kenduko da. Aldi berean, EAEK bere gain hartu ez dituen zamen artean Estatuko zorraren amortizazio-kuotak eta korrituak sartuko dira ($150.026.082 \cdot 6.24 = 9.361.627,5$).

10 puntuak: Kupo likidoa egongo litzateke, EAEK bere gain hartu ez dituen eskumenengatik ordainduko duena. Kupo likidoa lortzeko, ordaindu beharreko gastu guztietatik Estatuak bildutako zergak (EAERI egotzi beharreko sarrera badira) eta defizitaren bidez finantzatzen diren gastuak kendu behar dira.

Azkenik, 11 puntuak Araba lurralde historikoaren aldeko konpentsazioak, bere tradizio historikoa dela eta EAEko gainerako lurraldeekin alderatuz eskumen osagarriak dituenak, eta lurralde komuneko probintzietan Gobernu zentralak egikaritzen dituenak. Eskumen horien garrantzia kuantitatiboa txikia da, baina horien kostua kupotik kentzen da, eta kendutakoa Arabari ematen zaio.

Eta hauen kalkulu guztiak egin ondoren. Ordaintzeko kupo likidoa izango litzateke.

Euskal lurraldeek Espainiar ogasunari ordaintzeko eraren kontrako ideiak badaude; adibidez, De La Fuenteren ustez kupoaren sistema abantaila bat da EAEko lurraldeentzat. Bere ustez, kupoaren bost urteko legeek, Itunean ezarritako balorazio-printzipioak eta -prozedurak zehazten dituztenek, arazoak dituzte. Zehazki, Euskadik bere gain hartu ez dituen estatu-kargen balorazioa behar bezala, eta BEZaren doikuntza koefiziente deseguneratuekin egiten da.⁷⁷

De la Fuenterekin bat nator kupoaren kalkulua txarto dagoelako ideirekin, zergatik? Nire ustez 1981eko EAEko BPGa eta gaur egungoa ezberdinak direlako, beraz, gaur egun 6,24a jarraitzen dugu ordaintzen, oinarrituz, EAEko BPGa kopurua hori dela. Baina egia esan gaur egungoa txikiagoa da, eta ez dator bat kalkuluarekin. Izatez kupoaren ideia aztertzen dugunetik argi dago ordaindu behar genuena baino gehiago ordaintzen ari garela.

Hau oinarritzeko, hurrengo laukian⁷⁸ ikusten dugun bezala gaur egungo BPGa %6.00koa da, Beraz, ordaindu behar genuena baino gehiago ari gara ordaintzen.

⁷⁷ DE LA FUENTE MORENO, Ángel (2015), «La evolución de la financiación de las comunidades autónomas de régimen común, 2002-2012» *Papeles de economía española*, Nº 143, 2015 (Ejemplar dedicado a: La nueva reforma de la financiación autonómica: análisis y propuestas / coord. por Santiago Lago Peñas y Jorge Martínez Vázquez, 30.orr.


⁷⁸ Datosmacro.com. (2022). PIB de las Comunidades Autónomas 2022. Expansión. Be-

Bestetik, Espainiar estatuak dituen zorrak eta korrituak ordaintzen ditugu eta azkenik Lurraldeen arteko Konpentsazio Funtsean EAEk dirua jartzen du, funtsa horretatik dirua jasotzeko inongo ahalmenik izan gabe.

Comparativa: PIB anual				
CCAA	Fecha	PIB anual		Var. PIB (%)
Andalucía [+]	2022	180.224 ME		5,2%
Aragón [+]	2022	41.763 ME		3,8%
Asturias [+]	2022	25.822 ME		4,1%
Cantabria [+]	2022	15.355 ME		4,8%
Ceuta [+]	2022	1.907 ME		3,5%
Castilla y León [+]	2022	64.227 ME		3,1%
Castilla-La Mancha [+]	2022	46.716 ME		2,2%
Canarias [+]	2022	49.021 ME		9,7%
Cataluña [+]	2022	255.154 ME		6,0%
Extremadura [+]	2022	22.531 ME		2,1%
Galicia [+]	2022	69.830 ME		4,2%
Islas Baleares [+]	2022	35.465 ME		12,5%
Región de Murcia [+]	2022	35.810 ME		4,0%
Comunidad de Madrid [+]	2022	261.713 ME		7,2%
Melilla [+]	2022	1.757 ME		3,5%
Navarra [+]	2022	22.595 ME		4,7%
País Vasco [+]	2022	79.350 ME		6,0%
La Rioja [+]	2022	9.502 ME		5,5%
Comunidad Valenciana [+]	2022	126.416 ME		5,9%

Finantzaketa forala eta komunaren arteko aldeak

Lanean jorratu dudan bezala, Espainiar estatuan 2 finantza mota daude, alde batetik lurralde foraletan dagoen finantza sistema, honetan ere bi ezberdindu behar ditugu, alde batetik Nafarroaren kasua eta bestetik EAEko lurralde historikoetako eta bestetik Espainiar finantzaketa komuna (AEFLO), 8/1980 Lege Organikoa, irailaren 22koa, autonomia-erkidegoen finantzaketari buruzkoan oinarritzen dena. EAEkoa aldiz bigarren atalean aipatu dudan bezala Kontzertu Ekonomikoaren legean dago oinarrituta⁷⁹.




Estatuaren finantzaketa hurrengo moduan dago antolatuta: Espainiako finantzaketa autonomikoa Estatuaren transferentziak, autonomia-erkidegoen baliabide propioak eta Estatuaren diru-sarreretan parte hartzea konbinatzen dituen sistema batean oinarritzen da, lurralde nazional osoan zerbitzu publikoen

reskuratuta ([PIB de las Comunidades Autónomas 2022 | Datosmacro.com \(expansion.com\)](https://datosmacro.com/expansion.com))

⁷⁹ Gako hauei buruz, ikusi SERRANO-GAZTELUURRUTIA, Susana (2012), "Tributu Foru Arauen inguruko gatazkak",

bidezko prestazioa bermatzeko helburuarekin.⁸⁰ Esan dezakegu finantziazio autonomikoa beharrizan printzipioan oinarritzen dela. Zati batean autonomia erkidegoak Espainiar estatuak emandako diru sarreretatik finantzatzen direlako.



Aldiz, EAEko Lurralde Foralaren kasuan ez dira beharrizan printzipioan oinarritzen, baizik eta kapazitate printzipioan. Aurreko epigrafean aztertu dudana bezala, EAEko finantziarioa kontrolatzeko arduradunak Lurralde Foralak izango liriteke eta horiek, ondoren, Espainiako estatuari EAEk bere gain hartu ez dituen zamen ordainketa egiten dio, goiko epigrafean azaldu dudana bezala “kupoaren” sistemarekin.

Orduan, zer nolako ezberdintasunak daude, beharrizan eta kapazitate printzipioen artean. Nire ustez esanguratsuena arriskua izango litzateke, honetan EAEk, bere ekonomia ondo ez baldin badao, berdin berdinean ordaindu beharko die Espainiar ogasunari haiek asumitu ez dituzten zamen ordain gisa. Horren ondorioz EAEko agintariek haien lana ondo egin behar dute arazorik ez edukitzeko, kupoaren ordainketa urterokoa delako eta egoera txarrean baldin bagaude ere ordaindu beharko da eta bestetik, EAEk ez dauka eskubiderik Eskualdeen arteko berme funtsetik dirua lortzeko, nahiz eta funts horretara urtero ekarpenak egin, ez dauka eskubiderik beharrizan egoeran dagoenean funts horretatik dirua lortzeko.

Hau guztia esan ondoren, ez dut uste esan ahal dugunik EAEko sistemak Espainolarekin alderatuz abantailak dituenik, azken finean Espainiar Estatuak autonomia batek beti edukiko du estatua atzetik arazoren bat dagoenean dirua jartzeko, EAEko kasuan ez da hori gertatzen.

⁸⁰ Ley organica 8/1980, irailaren 22koa, Autonomia Erkidegoaren Finantzaketa.

Lanaren ondorioak

Ikerketa lan honek hiru helburu zituen. Lehenik eta behin, Kontzertu Ekonomikoaren sorreraren arrazoiak aztertzea, eta ze nolako egoerak egon ohi ziren Kontzertu Ekonomikoa sortzeko. Lanaz aztertu ondoren, ondorioztatzen dut pribilegio bat izan beharrean, Espainiar Estatuak EAEko Lurralde Foralei inposatutako zigor bat izan zela. Gainera, Espainiako gobernuak, EAEn ogasun bat ezartzeko ahalmenik ez zuenez, aurretik zegoena erabili zuten zigorra ezartzeko.

Aurrekoa kontuan izanda, ez dut uste eskubide bati buruz hitz egin dezakegunik. Izan ere, gaur egungo sistema lehenengo Kontzertu Ekonomikoarekin alderatuz, ezberdina dela esan dezakegu, bi aldeentzat onuragarria den sistema baita. Azken finean Lurralde Foralei ahalmena ematen die haien ogasuna kontrolatzeko, beti ere Espainiar estatuan dagoen harmonizazio legea errespetatuz, haien fiskaltza erak ezartzeko. Bestetik, Espainiar estatuak EAEn ez du lanik egin behar, urtero kupo kantitate bat lortuko baitute haien jaso balute bezala.

Beste alde batetik, zuzenbidearen ikaslea naizen heinean, Kontzertu Ekonomikoaren arauketa aztertzea beharrezkoa ikusten nuen. Horretan konturatu naiz ez dela Kontzertu Ekonomikoaren legean bakarrik oinarritzen hau arautzeko, baizik eta Gernikako Estatutuak, Espainiar Konstituzio, Harmonizazio legeak eta Lurralde historikoen legeak parte hartzen dutela arauketa honetan. Nire ustez, arauketa hau hainbat legeetan arautzeak sistema korapilatzen du. Hala ere, badakit lege batzuk "irekiz" gero, ez genukeela jakingo nondik atera diren. Adibidez, Lurralde Historikoen legea "irekitzen" badugu, ez dakigu ze nolako ondorioak ekarri ditzakeen. Horregatik, komenigarriagoa da sistema dagoen bezala uztea, eraldaketa batzuk egin baino.

Bukatzeko, niretzat lan honen helburu garrantzitsuena eta politena Espainiar Estatuan dauden bi sistema fiskalen arteko diferentzia da. Horren harira esan dezaket EAEko sistema ez dela pribilegio bat, izatekotan zama bat izango litzatekeela. Izan ere, zama bat dela, gaur egungo BPGa eta kupoa ezarri zen garaikoa ezberdina baita. Gaur egungo BPGa %6.00 da, beraz, oinarritik euskaldunok ordaindu behar genuena baino gehiago ordaintzen ari gara. Orduan nola esan dezakete pribilegio bat dela ordaindu behar duguna baino gehiago ordaintzen dugunean?

Bestetik, EAEko sistemari buruz hitz egiten dugunean, oso gutxi hitz egiten da

arrisku egoeraz, zergatik arrisku egoera? Azken finean daukagun sistema guk kontrolatzen dugu, eta euskal ekonomia ondo ez badoa, ez daukagu beste aukerarik aurrera jarraitzeko, kupoa berdin ordaindu behar baitugu. Ekonomia ondo dagoenean onurak ekartzen ditu Euskadirentzat. Izan ere, Espainiar estatuak kontrolatuko balu, ez genuke inbertsioetarako hainbeste diru izango. Beraz, guk kontrolatzen dugunez, gure inbertsioetan apustu handiagoa egin dezakegu.

BIBLIOGRAFIA ETA DOKUMENTAZIOA

DOKTRINA

ALONSO ARCE, Iñaki (2015), «La normativa tributaria general y el Concierto Económico». Forum Fiscal, núm. 206, febrero 2015.

ALONSO OLEA, Eduardo J. (1995), «*El Concierto Económico (1878-1937). Orígenes y formación de un Derecho Histórico*», IVAP-Col. Tesis Doctorales.

ARLUCEA RUÍZ, Esteban (2000), «La descentralización política de la Comunidad Autónoma Vasca», Versión Editora.

ATELA URIARTE, Aizbea. (2021). «*El desafío del fortalecimiento de la autonomía municipal: La Ley de Instituciones Locales de Euskadi*», Instituto Vasco de Administración Pública, Vitoria-Gasteiz, Accesit del Premio Jesús María de Leizaola 2021.

CAÑO MORENO, Javier (2007), «*Derecho autonómico vasco*», Universidad de Deusto.

CASTELLS ARTECHE, J. M., «Los derechos Históricos en el desarrollo estatutario». Jornadas de Estudios sobre la actualización de los Derechos Históricos Vascos». Servicio editorial Universidad del País Vasco, San Sebastián, Julio 1985.

CELAYA IBARRA, Adrian (1986) «*La decadencia del Regimen Foral y los derechos históricos*», Jornadas de Estudio sobre la Actualización de los Derechos Históricos Vascos: San Sebastián, julio 1985, Guipuzkoako Foru Aldundia = Diputaciòn Foral de Guipuzcoa, 30-47orr.

CORCUERA ATIENZA, Javier (1985), «Alcance de la constitucionalización de los derechos históricos», Jornadas de Estudio sobre la Actualización de los Derechos Históricos Vascos»: San Sebastián, julio 1985, Guipuzkoako Foru Aldundia = Diputaciòn Foral de Guipuzcoa, 380-409orr.

DE LA FUENTE MORENO, Ángel (2015), «*La evolución de la financiación de las comunidades autónomas de régimen común, 2002-2012*», *Papeles de economía española*, Nº 143, 2015 (Ejemplar dedicado a: La nueva reforma de la financiación autonómica: análisis y propuestas / coord. por Santiago Lago Peñas y Jorge Martínez Vázquez, 28-49 orr.

DE LA HUCHA CELADOR, Fernando (2006), «*El régimen jurídico del Concierto Económico*». Ad concordiam, Bilbao.

ENDEMAÑO ARÓSTEGUI, J. M., «La regulación del régimen local en la Comunidad Autónoma del País Vasco. Una cuestión pendiente». RVAP, núm. 96, mayo-agosto 2013, 113orr.

ERKOREKA GONZÁLEZ, Mikel (2020), «Concierto Económico y tributación empresarial. El impacto fiscal de la creación del jurado mixto de utilidades (1927-1933) », Rev. Historia contemporánea, Nº 65, 2021orr.

FERNÁNDEZ RODRIGUEZ, Tomás Ramón, (1985) «Los derechos Históricos de los Territorios forales: Bases constitucionales y estatutarias de administración foral vasca», Civitas/ Centro de Estudios Constitucionales, Madrid.

IBARRA ROBLES, Juan Luis.(1985) «La eficacia externa de las normas forales», Jornadas de Estudios sobre la actualización de los Derechos Históricos Vascos. Servicio editorial Universidad del País Vasco, San Sebastián, Julio 1985, 563-593orri

IBARRA ROBLES, Juan Luis.(2007) «Incidencia del derecho público foral en la determinación de la Autonomía local en la Comunidad autónoma del País vasco» Anuario de Gobierno Local 2006, 2007, 507-545orr.

JIMÉNEZ ASENSIO, Rafael (1997), «El sistema de fuentes del derecho de la Comunidad Autónoma del País Vasco como mecanismo asimétrico», Revista Vasca de Administración Pública. Herri-Arduralaritzako Euskal Aldizkaria, Nº 47, 2, 127-172orr.

LARRAZABAL BASAÑEZ, Santiago (2010), «¿26 años no es nada...? Luces y sombras en la distribución de competencias entre Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma del País Vasco y las de sus Territorios Históricos». Revista Vasca de Administración Pública, núm. 87-88, 707-741orr.

LARRAZABAL BASAÑEZ, Santiago (2013), «*Encaje constitucional, estatutario y legal del concierto económico como actualización de los derechos Históricos*». Boletín JADO, Año XII, núm. 24. Academia Vasca del Derecho, Bilbao, junio 2013,. 193-217orr.

¹ LARRAZABAL BASAÑEZ, Santiago (2017), «*Retos del autogobierno vasco para el siglo XXI: conocer el pasado, aprender del presente y soñar el futuro*». HERMES-Revista de Pensamiento e Historia, núm. 55 , 2017,. 108-111orr.

LARUMBE BIURRUN, Kepa (1986), «Naturaleza jurídica dual de las Instituciones Forales de los Territorios Históricos», Jornadas de estudio sobre la actualización de los derechos Históricos, Bilbao, 470-510orr

LASAGABASTER HERRARTE, Iñaki. (1994) «*Las normas forales: su naturaleza jurídica*» en AGIRREAZKUENAGA, I., BALZA AGUILERA, J., CASTELLS ARTECHE, J. M., FANLO LORAS, A., IBARRA ROBLES, J. L., LAMBARRI GOMEZ, C., LASAGABASTER HERRARTE, I., LOPERENA ROTA, D. y MONREAL ZIA, G. Cuestiones Particulares del Régimen Foral y Local Vasco, IVAP, 1994, 199-219orr.

LEGUINA VILLA, Jesús (1981), «Los Territorios Históricos vascos: poderes normativos y conflictos de competencias». Revista Española de Derecho Constitucional, Volumen 1, núm. 3, septiembre- diciembre, 63-92 orr.

LIZARRAGA, Razquin. (1991). «*La doctrina constitucional sobre los derechos históricos de los territorios forales De la negación al reconocimiento*», Revista de administración pública, Nº 124, 1991, 263-298orr.

LUCAS VERDÚ, Pablo. «*Historicismo y positivismo ante la conceptualización de los derechos históricos vascos*». Jornadas de Estudios sobre la actualización de los Derechos Históricos Vascos. Servicio editorial Universidad del País Vasco, San Sebastián, Julio 1985, 254-286 orr.

MARTINEZ ETXEBERRIA, Gonzalo. (2014). «La defensa jurídica de un derecho Histórico paradigmático: El Concierto Económico vasco». Tesis Doctorales de la Hacienda Foral.

MARTINEZ ETXEBERRIA, Gonzalo. (2014). «Los Territorios Históricos vascos y su producción normativa foral: Unas realidades fronterizas en busca del mejor encaje en el sistema». AD CONCORDIAM.

ORENA DOMÍNGUEZ, Aitor (2006), «*Espaldarazo al concierto económico (sentencia de 6 de septiembre de 2006 del Tribunal de Justicia de la Unión Europea) (Asunto C-88/03) »*, Nueva fiscalidad Nº. 9, 2006, orr. 107-142.

RAZQUIN LIZARRAGA, Martín (2000), «*Organización foral y hecho diferencial*» en la obra colectiva dirigida por COELLO MARTÍN, Carlos, El Estado Autonomíco y Hecho diferencial de Vasconia, Eusko Ikaskuntza/ Sociedad de Estudios

Vascos, Donostia - San Sebastián, 2000.

RAZQUIN LIZARRAGA, Martin (1996), «La inconstitucionalidad de las modificaciones unilaterales del Concierto Económico (Comentario a la Sentencia del Tribunal Supremo de 28 de octubre de 1995)». RVAP, núm. 46, 1997, diciembre 1996, 336orr.

ZARZALEJOS NIETO, Jose Antonio (1986), «*Reintegración foral en los aspectos orgánicos diputaciones forales y juntas generales*», Jornadas de Estudio sobre la Actualización de los Derechos Históricos Vascos: San Sebastián, julio 1985 (Guipuzkoako Foru Aldundia = Diputación Foral de Guipúzcoa), 166-181 orr.

ARAUTEGIA

ESPAINIAR ESTATUKO ARAUDIA

Espainiako Konstituzioa, 1978ko abenduaren 27koa. (1978). Estatuko Aldizkari Ofiziala

Gernikako Estatutuaren Legea, 3/1979, urriaren 18koa. (1979). Estatuko Aldizkari Ofiziala.

8/1980, Lege Organikoa (1980) irailaren 22koa, Autonomia Erkidegoen Finantzaketari buruzkoa

2002/12 Kontzertu ekonomikoaren legea.(2002), BOen 2002ko maiatzaren 24koa

Urtarrilaren 4ko 1/1978 Errege Dekretu-legea, Euskal Herriarentzat autonomia aurreko erregimena onartzen duena. (1978). Estatuko Aldizkari Ofiziala.

1877eko maiatzaren 5eko Errege Dekretua. « Bizkaiko Foru Aldundia indargabetzeko »,.

BARNE ARAUDIA

4/1998 Eusko Legebiltzarreko legea, martxoaren 6koa «de armonización, coordinación y colaboración fiscal»,. BOPV, núm. 60, de 30 de marzo. Web: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/1998/03/s98_0060.pdf (Azkenengo ikuskapena 2024eko maiatzaren 14a)

1983/27 Eusko Legebiltzarreko legea, azaroaren 25ekoa. «De Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos»,

EPAIK

76/1988 Epaia, Konstituzio Auzitegia, maiatzaren 26koa. (1988). Estatuko Aldizkari Ofiziala.

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren epaia, 2006ko irailaren 6koa (Asunto C-88/03). (2006)